

liburukia

5

Nafarroako Foru Komunitateko haurren babesaren
esparruko **II. prozedura-eskuliburua**

Haurrak babesteko egoeretan **jarduteko
gidaliburua** Nafarroako Foru Komunitateko
hezkuntza-sistemarako



Agencia Navarra de Autonomía y Desarrollo
de las Personas
Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako
Nafarroako Agentzia



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Eskubide Sozialetako Departamentua
Departamento de Derechos Sociales

1. liburukia. Nafarroako Foru Komunitateko haurren babesaren esparruko II. prozedura-eskuliburua
2. liburukia. Haurrak babestu beharra egokitzen denean esku hartzeko gida, Nafarroako Foru Komunitateko Oinarrizko Laguntzako gizarte zerbitzuentzat
3. liburukia. Haurren babesgabetasun-egoerak balioesteko Nafarroako Foru Komunitateko tresna
4. liburukia. Helburu orokorrak eta espezifikoak
5. liburukia. **Haurrak babesteko egoeretan jarduteko gidaliburua Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sistamarako**
6. liburukia. Haurrak babestu beharra egokitzen denean esku hartzeko gida, Nafarroako Foru Komunitateko osasun-sistemarako

5. liburukia. Haurrak babesteko egoeretan jarduteko gidaliburua Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sistemarako

2019ko maiatza

Koordinazioa.

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Familiaren eta Adingabeen zuzendariordetza.

Idazketa eta aholkularitza.

Agintzari, Gizarte Ekimeneko Kooperatiba Sozietatea.

Edizioa.

Agencia Navarra de Autonomía y Desarrollo de las Personas
Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia

Abejeras kalea, 5 bis, 7-9.

31004 IRUÑA

Tel.: 848 42 12 10

info.derechossociales@navarra.es



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Eskubide Sozialetako Departamentua
Departamento de Derechos Sociales

Diseinua eta maketazioa:

Marra, S.L.

ISBN: 978-84-120567-2-3



Dokumentu hau Creative Commons lizentzia batek babesturik dago. Baimendurik dago obra hau kopiatzea, banatzea eta jendaurrean komunikatzea, betiere nork egina den aitortzen bada eta ez bada erabiltzen helburu komertzialetarako. Obra honetatik abiatuta, ez da aldatzen, eraldatzen edo sortzen ahal beste obra eratorririk. Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Aurkezpena

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen xedea da adingabeen arreta integrala bermatzea Nafarroako Foru Komunitatean. Horretarako, adingabea babesteko esparru juridikoan sartzan ditu prebentzioa, sustapena eta babesari ziurtatzeko neurri eta jarduketari administratiboak; hala, kasu guztietan bermatzen ditu haurren eskubideak eta eskubideon defentsa, baita haien garapen integrala ere bizikidetzaren eremu guztietan. Horrekin guztiarekin koherente izanik, Familiari, Haurrei eta Nerabeei laguntzeko Nafarroako II. Planean planteatutako jardueren esparruan balioespen-tresna bat gauzatzeko beharretik sortua da hemen aurkezten dugun dokumentu hau. Ildo horretan, balioespen-erreminta berri gisa planteatzen dugu, *Nafarroako Foru Komunitatean haurren babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko eskuliburuak* 2003an markaturiko bidean.

Helburu horrekin gauzatu da *Nafarroako Foru Komunitateko haurren babesaren esparruko II. prozedura-eskuliburua*. Dokumentu hau familiaren, haurren eta nerabeen errealitateari buruzko Nafarroako gizarte-diagnostikoan (2017) jasotako ekarpenetan oinarrituta sortu da. Diagnostiko hartan adierazten zen beharrezkoa dela jardunbide komun bat adostea arrisku- eta babesgabetasun-egoerak sorrarazten dituzten elementu guztiak definitzeko eta interpretatzeko, eta beharrezkoa dela, orobat, sarean lan egiteko sistema koordinatu bat izatea, haurren eskubideak babestearekin eta defendatzearekin lotutako eragile eta erakundeen artean egin beharreko jarduerak arautzeko eta koordinatzeko. Horrenbestez, erabakiak hartzeak, baliabideak kudeatzeak eta gauzatu beharreko jarduerak oinarri-oinarrizko eredu bati jarraitu behar diote, zeinak alderdi guztien artean baliozkotua izan behar baitu, Haurrak Babesteko Sistemaren jarduketa guztiei koherentzia emateko gai izan dadin. Horrek esan nahi du gutxieneko jarduera-oinarriak ezarri behar direla nahitaez, profesional guztiek, norik bere gaitasun-maila eta jardun-ikuspegia aintzat harturik, elkarrekin adostu dezaten zer egin behar den, norik egin behar duen eta zer baliabide bideratuko dituzten.

Ziurrenik, babesgabetasunaren larritasunari buruzko ikerketa-prozesu egoki bat egiteko erabilitako baliabideak eta prozedurak izanen dira Haurrak Babesteko Sistemaren muina, eta sistema horren funtsezko alderdia izanen da, era berean, babesgabetasun-egoera hori azaltzen duten inguruabar pertsonalen, familiarren eta sozialen balioespen ekosistemikoa egitea ere. Ildo horretan, gure ustez irizpide komunak behar dituzte arrisku- eta/edo babesgabetasun-egoerak detektatzeko, jakinarazteko eta balioesteko prozesuek, bai eta halakoetan esku hartzeko ere. Haiei esker lortuko dugu talde profesionalei laguntzea, ez eragindako kaltea konpontzeko ikuspegitik bakarrik, baizik eta prebentzioa eta sustapena xede dituen ikuspegi edo paradigma berri batetik ere bai, zeinaren jarduteko erreferentzia-eremua komunitatea izanen baita. Horrek nahitaez eskatzen ditu diziplinartekotasuna, departamentu guztien arteko transbertsalitatea eta sareko lana, hala lortuko baita, batetik, jarduketa horiek adin txikiengan garaiz egitea, eta, bestetik, hurbileko baliabideak, oinarritzakoak eta normalizatuak baliatzea, familiek guraso izateko gaitasunak hobetu ditzaten beren komunitate-ingurunearen barnean.

Azken buruan, lortu nahi dugun sistemak erantzun eraginkorragoa emanen die familiaren, haurren eta nerabeen beharrei eta eskubideei, bakoitzaren inguruabarrak kontuan harturik.

Eskubide Sozialetako Departamentuak, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren bidez, bere gain hartu du *Nafarroako Foru Komunitateko haurren babesaren esparruko II. prozedura-eskuliburu* hau egiteko lidergoa. Horretarako, ekintza espezifikoak bultzatu ditu departamentuen arteko ikuspuntuarekin, hau da, koordinazio egokia izan dadin instituzio publikoen, hirugarren sektoreko erakundeen eta haurren eskubideen defentsan jarduten duten beste eragile batzuen artean, baliagarriak direla erakutsi duten jarduketak eta ereduak sakondu baitu eta berrikuntzak sartu baititu programa eta baliabide metodologikoetan, erronka berriei aurre egiteko.

Ikuspegi horretatik aurkezten dugu dokumentu hau, eta espero dugu ekarriko duela elementu berririk haurren eta nerabeen prebentzioan, sustapenean eta babesean hizkuntza komuna eraikitzeko. Horri esker, espero dugu hainbat alorretan aplikatzen ahalko dela, hala nola Gizarte Zerbitzuetako Oinarritzko Laguntza osoan zein laguntza espezializatuan, Gobernuaren zenbait departamentutan —Osasun, Hezkuntza eta Justizia departamentuetan, adibidez—, bai eta haurren eskubideak babesteko eta defendatzeko zerbitzuak kudeatzen jarduten duen hirugarren sektorean ere.

Azkenik, eskertu eta nabarmendu egin nahi dugu ingurune irekiko hezkuntza-programak eta babeserako egoitza-baliabideak kudeatzeko ardura duten erakunde, zerbitzu eta entitateek hausnarketarako eta azterketarako egindako ahalegina. Eskuliburu hau garatzen parte hartu duten guztiek aurkeztutako ekarpenei esker, hain beharrezkoa zen berregokitze bat egin diogu egungo detekzio, jakinarazpen, balioespen eta esku-hartze ereduari, egoera kalteberan bizi diren familia, haur eta nerabeetara bideraturik. Dokumentu estrategiko hau garatu ahal izateko ekarpenetako bat nabarmendu beharko bagenu, hauexek adierazi beharko genituzke: 1) partaidetza-maila handia eta eragileen heterogeneotasuna, ederki erantzuten baitzaio familia-instituziora eta haurren eta nerabeen mundura hurbiltzeko zalantzarik gabe beharrezkoa den dimentsio-aniztasunari; 2) partaidetza-prozesua gauzatzeko departamentu guztien artean baliatu dugun ikuspegi integrala eta integratua; 3) alderdi guztiek egindako ahalegina, esku hartzeko eredu eta metodologiaren garapenean aitzinera egitea eskatzen duten gertakari, egoera edo inguruabar berriak agerian jartzeko, bai ikuspegi deskribatzailetik, bai ikuspegi analitikoetik.

Iruñean, 2019ko maiatzaren 10ean.

Familiaren eta Adingabeen

Zuzendariordeak.

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako

Nafarroako Agentzia.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	7
2. Inguruabarrak eta lege-esparrua.....	9
Inguruabarrak	9
Lege-esparrua	10
3. Zer da haurren babesgabetasuna?.....	13
3.1. Haurren tratu ona sustatzea	17
3.2. Haurren babesgabetasuna prebenitzea (kalteberatasun-egoerak babesgabetasunerantz eta/edo haurren babesgabetasun-arrisku arinetarantz ez egiteko)	18
3.3. Haurrak babestea	21
4. Detektatzea eta jakinaraztea.....	23
Existitzen da haurren babesgabetasuna?	23
Nola hautematen ahal dituzte halako egoerak hezkuntza-arloko profesionalak?	25
Zer seinaleri erreparatu behar zaie?Erreparatu beharreko adierazleak hezkuntzan	28
5. Jakinarazpen-orria.....	35
Norengana jo behar da jakinarazpena egiteko?	35
Nola jakinarazi hautemandako egoera?	35
Larrialdi-egoera: balioesteko irizpideak	36
6. Hezkuntza-sistemaren partaidetza haur babesgabeekin esku hartzean.....	48
7. Eranskinak.....	55
1. Haurrekin elkarrizketak egiteko orientazio praktikoak (Garbarino eta beste batzuk, 1993)	55
2. Haurtzaroko eta nerabezaroko oinarritzko beharrak: Ebaluazio-adierazleak	57
3. Gizarte Zerbitzuen Direktorioa	75
8. Bibliografia.....	81

1. Sarrera

Haurrak babesteko egoeretan jarduteko gidaliburua Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sistamarako izeneko gida hau Nafarroako Foru Komunitateko haurren babesaren esparruko II. prozedura-eskuliburuaren barruan sartzen da, eta, horrenbestez, lotura zuzena du haren filosofia, helburu eta ekintzekin. Beraz, Haurrak Babesteko Sistematik esku har dezaketen familia barruko egoerei egiten die erreferentzia, eta barnean hartzen ditu osasun- eta hezkuntza-esparruak ere.

Gida hau batez ere Haur Eskoletan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hezkuntza Berezian lan egiten duten Nafarroako irakasleei zuzenduta dago, bai eta Ikastetxeetako Zerbitzu Psikopedagogikoetako eta Orientazio Departamentuetako profesional guztiei ere.

Dokumentu hau parte hartzeko prozesu batetik abiatuta sortua da, eta prozesu horretan orpoz orpo aritu dira Hezkuntza eta Osasun departamentuak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Oinarrizko Laguntza (azken horiek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Taldeak, eta Nafarroako Foru Komunitateko zenbait zonatan diharduten baliabide jakinek osatzen dituzte). Prozesu horretan esku hartu dute, orobat, Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuetako programak kudeatzen dituzten hirugarren sektoreko erakundeek (gaur egun Nafarroako Gobernuo Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzan daude sartuta), bai eta Nafarroako Foru Gobernuo Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzako berariazko taldeek eta departamentuarteko taldeek ere.

Beraz, ikuspegi horretatik lantzen da eskuliburuaren zein gida honen funtsezko puntua, zeina Osasun Sistemarako ere sortzen baita. Hala, hezkuntza eta osasun-sistemen arteko sare-lana eta inklusioa bultzatu nahi da haurrak babesteko sisteman. Bakoitzak bere ikuspegia eta ezagutza kontuan hartuz lan egiten du, eta aintzat hartzen dute, era berean, babes- eta babesgabetasun-egoeren gainean duten ikuspegi berezia haurren premiekin lotutako sentsibilizazio-, detekzio-, jakinarazpen- eta partaidetza-prozesuetan.

Hori horrela, lortu nahi da adingabeek eta haien familiek izan ditzaketan zailtasunen detekzio eta arreta goiztiarra izatea inplementatu beharreko ekintza espezifikoaren muina.

Besteak beste, hezkuntza-sisteman hasten dira adingabeak sozializatzen —derrigorrezko hezkuntza-adinean zein haur-eskoletan—, eta, beraz, orduan gelditzen dira gizarte osoaren bistan. Hala, aldendu egiten dira ordura arte ia familia bakarrak izaten den begiradatik eta harreman-esparrutik.

Beraz, eskolak eginkizun oso garrantzitsua du haurren ongizatean, eta, horretaz gainera, eremu pribilegiatua da haurren babesgabetasun-kasu posibleak detektatzeko. Hori dela eta, eskola-integrazio egokia da gizarte- eta familia-egoera txarrean dagoen edozein adingaberentzako babes-faktore nagusietako bat.

Hala ere, begi-bistakoa da hezkuntza-eremuak bakarrik ez diela heltzen ahal gizarte- edo familia-arazoei, hau da, haur edo nerabe orok beharko lukeen garapenean hain inpaktu negatiboa duten auziei. Kasu horietako askotan, beharrezkoak dira esku-hartze soziala eta sanitarioa, eta, beste batzuetan, beharrezkoa izaten da adingabeak babesteko neurriak hartzea ere.

Horregatik, funtsezkoa da hezkuntzaren arloan lan egiten duten profesionalen ahalik eta informazio zehatzena ematea adingabeen babesaren arloan inplikaturako prozesu eta eragileei buruz.

Gida honen bidez, alde batetik, Nafarroako Foru Komunitatean haur eta nerabeei eskaintzen zaien gizarte-babesa optimizatu nahi da, eta, bestetik, lortu nahi da eskola-testuinguruan lan egiten duten profesionalak bide egokiak aurkitu ahal izatea, gizarte- eta familia-egoera txarretan dauden haur eta nerabeen ongizateak sortzen dien kezka helarazi ahal izateko.

Gida honek lantzen dituen helburuen artean, hauek nabarmendu beharko liriteke:

- Hezkuntza-arloko profesionalak sentsibilizatzea eta motibatzea, haurren babesgabetasuna prebenitzearekin eta hautematearekin loturik.
- Haurren babesgabetasunaren oinarriko kontzeptu garrantzitsuenak argitzea eta bateratzea: definizioa, arrisku-faktoreak, adierazleak, eta abar.
- Detekzio- eta jakinarazpen-prozesuak erraztea, eta hautemandako egoera noiz, nola eta nori jakinarazi behar zaion argitzea.
- Herritar horiek artatzen esku hartzen duten erakundeen artean jarduera koordinatuak sustatzea.

Horretarako, ahalegin handia egin beharko da prozesu honetako hiru sistemetako profesionalak (Lehen eta Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuak, hezkuntza-sistema eta osasun-sistema) modu integralean eta departamentu guztien artean prestatzeko, *Nafarroako Foru Komunitateko haurren babesaren esparruko II. prozedura-eskuliburua* ezartzeak aurreikusten duen bezala.

Halaxe lortuko da egiaz elkar ezagutzea, ahalik eta hizkuntza bateratuena erabiltzea, eta sare egonkor eta kolaboratibo bat sortzea eta egituratzea haurren ongizatearen eta haur eta nerabeentzako tratu onaren alorrean.


Gida honek zortzi kapitulu ditu, sarrera hau barne. Aurkezpenaren ondotik, aipamen labur bat egiten zaie lege-arau interesgarri batzuei, eta inguruabar orokorrak eskaintzen dira Nafarroako Foru Komunitateko haurren babesgabetasunari buruz. Jarraian, haurren babesa eta babesgabetasuna zer diren azaltzen da kapitulu batean, eta barnean hartzen dira sustapenarekin, prebentzioarekin eta haurrak babestearekin lotutako alderdi espezifikoak. Laugarren kapituluan, haurren babesgabetasun-egoerak eskola-eremuan detektatzeko eta jakinarazteko auziaren gainean sakontzen da, eta jakinarazpen-prozesuaren alderdi oso zehatzak jasotzen ditu, bai eta jakinarazpen-fitxa ere. Jarraian, hezkuntza-esparruak haurrak babesteko sistemaren barruan eta partaidetza aktiboan duen eginkizun transbertsalaz hitz egiten da. Amaitzeko, zenbait eranskin jasotzen dira, bai eta bibliografia ere.

Gida honen helburua da hezkuntza-sistemako profesionalei hurrenganako begirada hobetzen laguntzea, lehenbailehen detekta ditzaten haurren babesgabetasuna ekar dezaketen egoerak. Hala, ahalik eta bizkorren lantzen ahalko dira, adingabeen eta haien familien erresistentzia txikiagoarekin.

Bestalde, sare bat eratu nahi da fenomeno horren konplexutasunari aurre egiten dakiten eta haurren tratu ona sustatzeko politika aktiboak ezartzen ahal dituzten sistemen artean, eta, horretaz gainera, aktiboki parte hartu nahi da babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak babesten eta halako egoerak prebenitzen.

2. Aurrekariak eta lege-esparrua

Kokapena



Grafiko honetan, Nafarroako Foru Komunitateko Haurrak Babesteko Sistemaren jarduera-esparrua aurkezten da.

Biltzen dituen elementuen artean ageri dira, esaterako, zenbait kontzeptu (legezkoak eta teknikoak), larritasun-mailak (arriskurik gabekotik hasi eta babesgabetasun oso larriraino), esku-hartze motak (prebenitzekoak edo birgaitzekoak) eta esku-hartzea koordinatzen duten zerbitzuak.

Bilketa horrek bi helburu nagusi ditu funtsean:

- 1 Transbertsalitatearen aldeko apustu argia eta garbia egitea haurrak babesteko sistemaren jardueren mailen artean, eta, besteak beste, gizarte zerbitzuetako, hezkuntzako eta osasuneko programen artean.
- 2 Adingabeek familiako eta kideen arteko harremanetan dituzten zailtasun hasiberrien detekzio eta arreta goiztiarra.

Bestalde, adierazten da adingabea eta haren familia elkarrekin bizi diren komunitatetik ahalik eta hurbilen eginen direla familia-zaintzaren arloko jarduketak guztiak. Hartara, Gizarte Zerbitzuen Bigarren Mailako Arretan bakarrik artatuko dituzte adingabea bizikidetzagunetik bereiztea eskatzen duten egoerak (hau da, babesgabetasun-kasu oso larrietan, erakunde publikoek zaintza beren gain hartzen dutenean, gurasoek edo tutoreek hala eskatuta).

Lege-esparrua

Nafarroako Foru Komunitateko Haurrak Babesteko Sistemari diharduten eragileen jarduna gaur egun indarrean dagoen nazioarteko, Espainiako eta Foru Komunitateko lege-esparruan oinarritzen da. Hain zuzen ere, arau hauek dira nabarmentzekoak:

1959ko abenduaren 20an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Haurren Eskubideen Adierazpena onetsi zuen.

21/1987 Legea, azaroaren 11koa, Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilar buruzko Legearen artikulua batzuk aldatzen dituena.

1989ko azaroaren 20an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Haurren Eskubideen Konbentzioa onetsi zuen.

1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15koa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, eta Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatzekoak.

15/2005 Foru Legea, abenduaren 5koa, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa.

69/2008 Foru Dekretua, ekainaren 17koa, gizarte-zerbitzu orokorren zorroa onesten duena — adingabeak artatzeari buruzko atalean, prestazio bermatu gisa jasotzen du adopzio nazionalerako eta internazionalerako informazio-, aholkularitza-, balioespen- eta laguntza-zerbitzua—.

172/2015 Foru Dekretua, irailaren 3koa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren estatutuak onesten dituena —Nafarroako Gobernuaren adingabeen babesaren arloko organo eskuduna den aldetik, hari dagokio organo barneko profesionalen berariazko prestakuntza haurrak babesteari dagokionez—.

8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoak, 2015/07/23ko BOEn argitaratua eta 2015/08/12an indarrean jarria (lege-organikoa da, Espainiako Konstituzioaren 14., 15., 16., 17.1, 18.2 eta 24. artikuluetako oinarritzko eskubideei eta askatasun publikoei eragiten baitie), eta 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena (2015/07/29ko BOEn argitaratua eta 2015/08/18an indarrean jarria).

15/2005 Foru Legea, abenduaren 5koa, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa partzialki garatzeko erregelamendua onesten duen urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuak babesgabetasun-egoeren garapena egiten du 18. artikulutik aitzinera, zeinak 15/2005 Foru Legearen zenbait alderdi garatzen, zabaltzen eta xehatzen baititu.

Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntzaren esparruko lege-xedapenei dagokienez, hauek dira nabarmentzekoak:

Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko Lege Organikoaren (LOMCE) 71.1 artikulua ezartzen duenez, hezkuntza-administrazioek lehentasunezko ikastetxeen planak ezartzen ahalko dituzte, gizarte-desabantailako egoeran dauden ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeei laguntza berezia eskaintzeko.

93/2008 Foru Agindua, ekainaren 13koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez arautzen baita nola erantzun aniztasunari Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen

Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan.

47/2009 Foru Agindua, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan diharduten ikasleen ebaluazioa arautzen duena.

52/2009 Foru Agindua, hezkuntza sistemako lanbide heziketako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta ikasketen egiaztapena arautzen dituena, 86/2014 Foru Aginduak aldatua.

47/2010 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa.

109/2011 Foru Agindua, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketetako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta ikasketen ziurtapena arautzen dituena, 86/2014 Foru Aginduak aldatua.

65/2012 Foru Agindua, ekainaren 18koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, ikastearen nahasmenduengatik eta arreta faltagatiko nahasmenduarengatik (hiperaktibitatearekin) hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna arautzen duena Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, Nafarroako Foru Komunitatean.

72/2014 Foru Agindua, Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleak ebaluatzeko eta hurrengo mailara pasatzeko arauak ezartzen dituena.

4/2017 Foru Agindua, urtarrilaren 20koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatzeko, hurrengo mailara pasatzeko eta titulazioa lortzeko arauak ematen dituena.

50/2017 Foru Agindua, apirilaren 19koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duena.

Zehazki, oso kontuan hartu behar da Adingabearen Babes Juridikoari buruzko eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzeko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak 22 quater artikuluan (“Datu pertsonalen tratamendua”) dioena:

- 1 Lege honen II. tituluko I. kapituluaren aurreikusitako helburuak betetzeko (adingabearen interes gorena), administrazio publiko eskudunek interesdunaren baimenik gabe biltzen eta tratatzen ahalko dituzte adingabearen egoera balioesteko behar diren datuak, barnean harturik adingabeari buruzkoak zein haren familia- edo gizarte-inguruneari buruzkoak.

Profesionalek, erakunde publiko eta pribatuek eta, oro har, edozein pertsonak jarriko dituzte administrazio publikoen eskura adingabeei, haien gurasoei, tutoreei, zaintzaileei edo harreragileei buruz eskatzen zaizkien txostenak eta aurrekariak —xede horretarako beharrezkoak izateagatik eskatzen direnak—, eta ez da behar ukituriko pertsonaren baimenik horretarako.

- 2 13. artikuluan aipatutako erakundeek interesdunaren baimenik gabe tratatzen ahalko dute agindu horretan ezarritako eginbeharretarako ezinbestekoa den informazioa, eta datu horiek administrazio publiko eskudunei edo Fiskaltzari jakinaraztea izanen da horren helburu bakarra.
- 3 Administrazio publikoek bildutako datuak lege honetan ezarritako babes-neurriak hartzeko soilik erabiltzen ahalko dira, ez beste deus egiteko, eta beti hartu behar da aintzat

adingabearen interes gorenaren bermea. Hartu beharreko ebazpenak hartu behar dituzten administrazio publikoei, Fiskaltzari eta organo judizialei bakarrik jakinarazten ahalko zaizkie datu horiek.


5. liburukia. Haurrak babestu beharra egokitzen denean esku hartzeko gida, Foru Komunitateko hezkuntza-

- 4 Datuak Fiskaltzaren esku ere uzten ahalko dira interesdunaren adostasunik gabe, eta hark tratatu eginen ditu lege honetan eta aplikatu beharreko araudian ezarritako eginkizunak betetzeko.
- 5 Nolanahi ere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko xedapenean ezarritakoari jarraituko zaio datuok tratatzerakoan, eta araudi horretan aurreikusitako segurtasun-neurririk zorrotzenak ezartzea eskatzen ahalko da.

3. Zer da haurren babesgabetasuna?

Haurren babesgabetasuntzat hartzen da adingabe batek oinarrizko premiak beteta ez edukitzea (2. **eranskina**) eta kalte fisiko edo psikikoa (emozionala, soziala eta/edo kognitiboa) jasatea edo jasateko arriskua izatea, gurasoen edo zaintzaileen portaeraren eta egitezko edo ez-egitezko harremanaren ondorioz.

Haurren babesaren edo babesgabetasunaren *continuumean* larritasun-maila bat baino gehiago agertzen ahal dira, hasi arriskurik ez izatetik eta babesgabetasun-egoera oso larrietaraino.



Aurreko grafikoa ikusten den bezala, alde batetik, gurasoen tratuaren egokitasun-maila gutxi-asko handiak eta, bestetik, tratu positibo edo negatibo horrek adingabearengan duen inpaktuak zehazten dute larritasun-maila txikienetik handienara bitartean, haurren babesarekin edo babesgabetasunarekin lotutako maila guztietan.

Horretaz gainera, askotariko prebentzio-klaseak biltzen dira, larritasun-maila txikiagoarekin edo handiagoarekin lerrokatuta —koloreak degradatuta ageri dira maila bakoitzean—, haietako bakoitzaren *continuuma* kontuan hartuta.

Oinarrizko printzipio hauek arautzen dute babes-sistema:

1. Haur eta nerabe orok du zaintzeko eta tratu txar, abusu eta zabarkeriatik babesteko eskubidea, bai eta indarkeriarik gabeko ingurune batean bizitzekoa ere.

2. Haurrak eta nerabeak babestea, oinarri hauen arabera:
 - a) Adingabeak eta haien eskubideak zaintzea.
 - b) Gurasoei edo adingabearen legezko arduradunei beharrezko laguntza-zerbitzuak eta -baliabideak ematea, guraso-betebeharrak betetzeko gai izan daitezen.
 - c) Haurra edo nerabea familiarengandik banandu dezaten prebenitzeko ahaleginak egitea.
 - d) Beharrezkoa bada, administrazio publiko eskudunari proposatu behar zaio behin-behinean ordeztu behar direla gurasoak edo guraso-eginkizunak dituzten legezko arduradunak, edota familia-ingurune alternatibo, egonkor eta seguru bat eskaintzea adingabeei, jatorrizko familian jarraitzea edo hara itzultzea ezinezkoa bada.
3. Haurraren edo nerabearen interes gorena.
4. Haurraren beharren ikuspegia eta baliabideak beharretara egokitzea.
5. Familia, haurren garapenerako ingurune egokia.
6. Prebentzioaren eta esku-hartze goiztiarraren garrantzia.
7. Erabakiak kalitatez hartzea.
8. Adingabeen eta haien gurasoen edo legezko arduradunen parte-hartzea erabakiak hartzeko prozesuan eta esku hartzerakoan.
9. Alternatiba hobeak bilatzea, ahalik eta gutxien esku hartuta eta ahalik eta epe laburrenean.
10. Aniztasunarekiko sentikortasuna eta errespetua.
11. Etengabe hobetzen saiatzea.

Zer da tratu ona?

Adingabearekiko tratu ontzat hartzen dira hurrek eta nerabeek beren familiaren, gizarte-taldearen eta administrazioaren zein instituzioen aldetik jasotzen dituzten afektu-, zaintza-, hazkuntza-, babes- eta sozializazio-adierazpenak, garapen integral egokia izateko beharrezko baldintzak bermatuko dizkietenak —hau da, garapen afektiboa, psikologikoa, fisikoa, sexuala, intelektuala eta soziala—.

Harremanetan, oro har, eta haur txikiekin aritzean, bereziki, tratu ona eskaintzeak ez du esan nahi tratu txarrik ez izatea bakarrik. Halakorik ez izatea seinale ona da, noski. Alabaina, tratu onez mintzatzeak gogoeta sakonagoa egitera gonbidatzen gaitu; hau da, hausnartu behar dugu zer-nolako harremanak izaten ditugun helduok haiekin familietan eta familietatik kanpo, gure komunitateetan eta are espazio publikoetan.

Tratu ona, beste ezer baino lehen, pertsonen arteko harremanetarako modu berezi bat da, besteren duintasuna errespetatzean eta balioestean oinarritzen dena. Tratu onaren ezaugarria da enpatia baliatzea besteren beharrak ulertzeko eta premia horiei zentzua emateko. Tratu onetan, pertsonen arteko komunikazioa eraginkorra izaten da, premiak jator partekatzeko; era berean, indarkeriarik gabe konpontzen dira gatazkak, eta behar bezala erabiltzen dira hierarkia eta boterea harremanetan.

3. Zer da haurren babesgabetasuna?

Eskola-eremuan tratu ona emateko eredu batek hezkuntza-esparruko profesionalen eta hezkuntza-ingurune profesional eta eragile guztien lehentasunen erdigunean paratu behar du ikasle guztien ongizatea, fisikoa zein emozionala, eta arreta berezia jarri behar die eskubideak urraturik dituzten haurren ongizateari. Zoritxarrez, portaeraren nahasmenduak eta adierazpen oldarkor eta/edo bortitz batzuk oso loturik egoten dira maiz gabezia jakin batekin; hau da, familiak eta erakundeak ez dira gai izan giro afektiboan eta tratu onean oinarritutako gizarte-testuinguru bat bermatzeko haurtzaroan.

Jarraian, taula orokor bat aurkezten da haurren eta nerabeen oinarritzko premiei buruz, zeinak erreferentzia gisa balio baitute tratu onarekin loturiko praktikak garatzeko. Premia horietan sakontzeko, dena den, egokitzen da gida honen [2. eranskina](#) kontsultatzea, han baitaude jasota premia-motaren eta adingabearen adinaren arabera ebaluazio-adierazleak.


Oinarrizko premien taxonomia haurtzaroan eta nerabezaroan*

Behar fisikoak	Segurtasuna	Behar emozionalak	Behar sozialak	Behar kognitiboak
<ul style="list-style-type: none"> • Elikadura. • Tenperatura. • Higienea. • Osasuna. • Loa. • Jarduera fisikoa: ariketa fisikoa eta kirola. 	<ul style="list-style-type: none"> • Haurrak edo nerabeak haien osotasun fisikorako arriskutsuak diren ingurune-baldintzetatik babestea. • Kalte egiten dioten edo egiten ahal dioten beste heldu edo adingabeetatik babestea. • Haurrak edo nerabeak babestea, beren buruari egiten ahal dioten kaltetik. 	<ul style="list-style-type: none"> • Segurtasun emozionala: <ul style="list-style-type: none"> - Harreman seguruak, egonkorak eta afektiboak izatea pertsona heldu garrantzitsuekin. - Haurraren edo nerabearen premiekiko sentikortasuna eta erantzun-gaitasuna. - Kontaktu fisiko egokia. - Afektua eta babes positiboa jasotzea. - Senideekin eta beste pertsona heldu garrantzitsu batzuekin harremanak izaten jarraitzea. • Parte-hartze eta autonomia progresiboa. • Garapen-prozesu psikosexuala errespetatzea. • Irudizko arriskuetatik babestea. • Ondoez emozionalaren sintomak edo arazoak konpontzen laguntzeko jarrera. 	<ul style="list-style-type: none"> • Jokabidearen orientazioa eta mugak. • Gizartean parte hartzeko eta beste pertsona batzuekin harreman egokiak ezartzeko emozio eta jokabide egokiak kontrolatzen ikastea. • Harreman sozialen sarea. • Elkarrekintza ludikoa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Zentzumenak estimulatzea. Esplorazio- eta ikaskuntza-esperientziak eskura jartzea. • Ezagutzak eta trebetasunak eskuratzea antolatutako prestakuntza-prozesu baten bidez (eskola edo homologatutako besteren bat). • Arakatzeko fisikoa eta soziala. • Ulermena.

3. Zer da haurren babesgabetasuna?

3.1. Haurren tratu ona sustatzea

Haurren tratu ona sustatzearekin eta haren gaineko sentsibilizazioarekin lotutako ekintza espezifikoak egin ahal izateko, Nafarroako Foru Komunitate osoan sare bat antolatzea proposatzen da, hainbat eraztun zentrokiderekin, haurtzaro-politikak eta -ekintzak homogeneizatu eta egituratu ahal izateko.



- Eskualde-mahaiak

Oinarrizko toki-eremuetako eragile ugari osatutako lan-egiturak, eskualdeetan taldekatuta: Hainbat arlotako profesionalak, hala nola gizarte-zerbitzuak, osasunekoak (pediatria, osasun mentala...), arreta goiztiarrekoak, hezkuntzakoak, hirugarren sektoreko erakundeak eta aisialdi eta denbora libreko beste eragile batzuk.

- Eskualdeen arteko egiturak

Aurreko eraztuneko eskualde-mahaietako (gizarte zerbitzuak, osasuna eta hezkuntza, besteak beste) ordezkariak osatutako lan-mahaia. Helburua izan da eskualdeetako lan-mahaien xedeen eta ekintzen berri izatea eta haien jarraipena egitea, Nafarroako Foru Komunitateko eskualdeen artean sinergiak sortu ahal izateko, eta, hala, homogeneotasun generikoa eskualde bakoitzaren espezifikotasun potentzialarekin orekatzen saiatzeko.

- Departamentuburuak

Departamentuen arteko lan-mahaia, Nafarroako Foru Komunitateko haurren arloko politika orokorrean eragiten duten arduradunak bilduko dituen (Eskubide Sozialetako, Osasuneko eta Hezkuntzako departamentuak). Mahai horretan, Nafarroako eskualdeetan garatzen diren helburu eta ekintzei buruzko informazioa landuko da, eskualdeen arteko lan-mahaiak jasotako *feedback*aren bidez.

Lan-eremu horiek osatzeko, esparru batzuetako eta besteetako eragile ugari hautatu beharko dira (gizarte-zerbitzuak, hezkuntzakoak eta osasunekoak), kontuan izanik adingabeekin eta haien familiekin zuzenean eta ikuspegi desberdinetatik lan egiten duten profesionalen multzoa ordezkatzeko dutela, dela eskualdeko mahaietan, dela eskualdeen arteko mahaietan.

Horretarako, nahitaezkoa izanen da baldintza hauek betetzea:

- Sistema bakoitzaren lurralde-antolamenduaren ikuspegitik esanguratsuak izatea.
- Denboran presentzia jarraitua eta iraunkorra ematea, parte-hartzaileak edozein izanik ere (informazioa transmititzeko, deialdiak egiteko eta aktak jasotzeko sistema eraginkorra...).
- Erakundeek berek pertsonen presentzia baliozkotzea.
- Jarduteko talde/mahaien artean etengabeko feedbacka sortzea.

3.2. Haurren babesgabetasuna prebenitzea (babesgabetasunarekiko kalteberatasun-egoerei eta/edo haurren babesgabetasun-arrisku arinei dagokienez)

Ikastetxeak —Haur Hezkuntzakoak, Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoak, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa eskaintzen dituztenak, bai eta Hezkuntza Berezikoak ere—, behatoki pribilegiatu bihurtzen dira haurrek *de facto* bizitzen ahal duten edozer babesgabetasun-arrisku edo kalteberatasun-egoera detektatzeko. Izan ere, ikastetxeak dira haurrak egunero hartzen dituzten erakunde bakarrak —gero eta gazteagotatik, gainera, azken urteotan familia- eta lan-ereduetan izan diren aldaketen ondorioz— eta ikastetxeak dira, hain justu, oraindik gelditzen zaizkigun bizikidetzaren gune bakaretako bat. Hala, agertoki ezin hobea dira tratatu oneko ereduetan oinarritutako giza harremanak sustatzeko, baina baita lankidetzaren bideak irekitzeko ere, dela familiekin, dela haurrak zaintzeko eta babesteko prozesuetan zuzenean esku hartzen duten profesionalekin.

Hori horrela, prebentzioarekin lotutako ekintza espezifikoak txertatzen ahalko dira hezkuntza-inguruneetan, bai kalteberatasunari dagokionez, bai babesgabetasun-arrisku arinak ageri diren inguruabarretan.

Beraz, egoera horiek hezkuntza-testuingurutik identifikatzea izanen da gida honen helburu nagusietako bat, egoera horiek garaiz detektatu ahal izateko eta neurriak ahalik eta lasterren abiarazi ahal izateko.

Izan ere, hezkuntza-komunitate osoan identifikatzen ahal dira berriazko prebentzio-ekintzak, zeinak funtzionamendu-jardunbide egokitzat hartzen baitira. Hona hemen haietako batzuk:

- Familiei ematen zaien laguntza eta aholkularitza.
- Adingabeei zuzendutako jarduerak, norbere eta besteren emozioak ezagutzen ez ezik harreman sozialetan ere laguntzeko.
- Gurasoei eta adingabeei zuzendutako jarduerak, haurren eskubideak ezagutarazteko.
- Hezkuntza-komunitate osoak haurren premiak ezagutu ditzan sustatzea, eta, hala, babes-faktoreak bultzatzeko eta arrisku-faktoreak ezabatzeke gai izatea.

- Haurrei tratatu txarrak emateko moduak ezagutaraztea ikasleei.

Badira beste ekintza espezifikoago batzuk ere. Hauek, adibidez:

- PROEDUCAR-HEZIGARRI programa, zeinaren helburua baita eskola-porrota eta eskola-uztea murriztea. Horretarako, prestakuntza-ekintzak proposatzen ditu, hezkuntza-arloko profesionalari eta ikastetxeen antolamendu- eta metodologia-erlaketari zuzendurik.
- Indartze- edo laguntza-programak (egoera sozial kaltebera eta eskola uzteko arriskua den kasuetan).
- Lehen Hezkuntzako Laguntza Programa, oinarrizko gaitasunetan dituzten gabeziak konpentsatzeko (berandu hasten diren ikasleentzat eta gizarte-egoera kalteberan daudenentzat).
- Aniztasunari arreta ematen espezializatutako hezkuntza-arloko profesionalen laguntza: pedagogia terapeutikoaren alorreko hezkuntza-profesionalak, entzumen eta hizkuntzaren alorrekoak, Lehen Hezkuntzako laguntza-eremuko profesionalak, zaintzaileak eta fisioterapeutak.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuentzako edo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateentzako laguntzen deialdia, eskola-sustatzaileak edo bitartekari soziokulturalak kontratatuzko. Jarduera horien artean, hauek nabarmendu behar dira: familien eta ikastetxearen arteko etengabeko harremana, ikastetxeetan garatzen diren inklusio sozioedukatiboko proiektuetan parte hartzea, eta baztertuta gelditzeko arriskuan dauden ikasleen eta haien familien inklusio sozioedukatiboari modu espezifikoan ekiteko zenbait jarduera.
 - Curriculum Eguneratzeko Plana: Hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasleei aplikatzen ahal zaie Curriculum Eguneratzeko Plana, curriculum-atzerapena badute.
DBHko 1. ikasmilako ikasleei ere aplikatuko zaie neurri hori lehen ikasmilako curriculumetik urruntzen den curriculum mailarekin sartzen badira etapa horretan, hezkuntza premia berezirik izan gabe ere.
 - Zatiketzea: Batxilergoa osatzen duten bi ikasmilak egitea curriculumeko irakasgaiak multzotan zatituta. Hezkuntza premia bereziak edo behar bezala egiaztatutako osasun arazo larriak dituzten ikasleei aplikatzen ahal zaie neurri hori.
 - Hezkuntza-errefortzua: Matrikulazioaren ikasmilako curriculum arrunta egiten duten baina ikasketa prozesuan aitzina egiteko hezkuntza arreta arruntaz kanpoko behar duten ikasleei aplikatuko zaie irakasgai batean hezkuntzaren sostengua edo errefortzua emateko neurria.
 - Hezkuntza-errefortzua, Sartzeko Curriculum Egokitzapenarekin: Hezkuntza errefortzuaren barruan, sarbide egokitzapenak sartzen ahalko dira komunak ez diren baliabide material eta irispidekoak behar dituzten ikasleendako: ingurune espazio eta alderdi fisikoak egokitzea; ekipamendua, material didaktikoa eta baliabideak egokitzea (lupak, FM ekipoak, Brailleko testuak, altzariak...), denboraren egokitzapena, metodologiaren eta antolakuntzaren egokitzapenak.

- Curriculuma aberastea: Hezkuntza-errefortzuan, curriculuma aberasten ahal da gaitasun handiko ikasleentzat, gaitasun horiek ahalik eta gehien garatu ditzaten.
- Malgutzeta: Neurri hori gaitasun handiak dituzten ikasleei bakarrik aplikatzen ahal zaie. Hezkuntza-sistemako ikasturteen edo etapan iraupena malgutzeta.
 - a) Ikaslearen oinarrizko hezkuntzaren hasiera urtebete aurreratzea, baldin eta haren garapen pertsonal eta sozialerako egokia bada.
 - b) Bere adinari dagokion ikasmaitatik goitiko batera sartzeta, arreta espezifikorako neurri eta programekin batera, hala badagokio.
- Errekuperazio-programa: Aurreko ikasturtean irakasgai batean kalifikazio positibo bat lortu ez duten ikasleei aplikatuko zaie irakasgai horretako errekuperazio-programa. Hau da, irakasgaiak gainditu gabe dituzten ikasleei eta ikasmaita errepikatu behar duten ikasleei.
- Curriculum-egokitzapen esanguratsua: Curriculum-egokitzapen esanguratsua aplikatu ahal izateko, ikasleek hezkuntza premia bereziak izanen dituzte, baita matrikulazioaren ikasmaitaren curriculumetik urtebete urruntzen den curriculum maila bat ere.
- Etopan beste urtebete edo gehiago ematea: Etopan edo ikasturtean beste urtebete edo gehiago ematea. Neurri horren aplikazioa indarrean dagoen araudiaren arabera arautuko da.
- Aniztasunari erantzuteko neurriak Lanbide Heziketan: Etapa horretako aniztasunari erantzuteko neurriak arautzeko, kontuan hartuko da, alde batetik, 52/2009 Foru Agindua, hezkuntza sistemako lanbide heziketako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta ikasketen egiaztapena arautzen dituena (eta, zehazki, V. kapituluko 20. artikulua), zeina 86/2014 Foru Aginduak aldatzen baitu, eta, bestetik, 109/2011 Foru Agindua, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketetako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta ikasketen ziurtapena arautzen dituena (eta, zehazki, V. kapituluko 20. artikulua), zeina 86/2014 Foru Aginduak aldatzen baitu.

Bestalde, Berdintasun eta Bizikidetzatza Atalak unibertsitatez kanpoko ikastetxeetarako eta irakaskuntzako profesionalentzako prestakuntza diseinatzen eta garatzen du, etapa eta maila guztietako ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuetan zein ikastetxeen antolakuntzan eta ikastetxeen eta hezkuntza-komunitatearen arteko harremanetan berdintasuna eta bizikidetzatza positiboa txertatzeko. Gainera, baterako hezkuntzako eta bizikidetzatza proiektu eta jarduerak ezagutzera eman eta dinamizatzen ditu eta, azkenik, behar duten ikastetxe eta pertsonen aholkularitza ematen die. Hori horrela, berdintasuna sustatzeko eta bizikidetzatza hobetzeko zenbait ekintza estrategiko abiarazi dira:

- “Laguntza” programa.
- Berdintasunerako hezkuntza.
- Tratu onak ikastea.
- Sexu-identitateen aniztasuna.
- Indarkeria guztien prebentzioa.
- Ikasketa teknologiak hautatzeko orientazioa.

Horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo Hezkuntza Departamentuaren webgunera: <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/convivencia>.

Kapitulu honetan ikusi denez, prebentzioarekin eta esku-hartzearekin lotutako ekintza ugari daude, ikasleek eskola-testuinguruan izan ditzaketen zailtasunetatik abiatuta lantzeko.

Beharbada, eragile guztiek hezkuntza-inguruabarren baliabide-aniztasun hori ezagutzea —sistemen eta eragileen arteko sare-ehuna eraikitzeetik abiatuta, sustapenarekin lotutako puntuan azaldu den bezala— artikulazio egokia izan daiteke haurrak zaintzen inplikaturako sistemen artean (gizarte-zerbitzuak, osasuna eta hezkuntza), eta, hala, gaitasun handiagoa lortzen ahal da ager daitezkeen arazo berriei erantzun integralak proposatzeko.

Beraz, gainjartzeak saihesten ahalko dira, zehaztasun handiagoa izanen da eta jakintza gehituko da, eta, ildo beretik, baliabideak arrazionalizatuko dira eta ikuspegi globala landuko da, sistema bakoitzeko eragile bakoitzaren ikusmolde partikularrarekin.

Gainera, sistema gisa banaka jardutetik sistemen arteko partaidetzara igarotzen da, eta elkarrekin eraikitzen ahalko dituzte antzeko premiak dituzten taldeek osatutako prebentzio-ekintzak, eta orpoz orpo lan egiten ahalko dute, esate baterako, Hezkuntza eta Osasun departamentuek, Hezkuntza Departamentuak eta Gizarte Zerbitzuek, edo hirurek.


3.3. Haurren babesa

Zehazten da adingabe batek zer egoeratan behar dituen babes-ekintzak, hau da, arrisku ertainean, arrisku larrian edo oso larrian —babesgabetasun-egoeran— dagoenean.

Egoera horietan, Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Laguntzak (batetik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta, bestetik, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Taldeak) edo Gizarte Zerbitzuetako Bigarren Mailako Arretak (Nafarroako Gobernuako Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordeak) dute erantzukizuna. Haiiek gauzatzen dituzte ikerketa eta/edo ebaluazio-prozesuak, haiiek hartzen dituzte erabakiak eta diseinatzen dituzte esku hartzeko planak. Era berean, haien egitekoa da plan horiek abian jartzea eta ebaluatzea ere. Adingabeari eta haren familiei behar dituzten baliabideak ematen dizkiete, dituzten zailtasunak gainditzen saiatzeko.

Fase, helburu eta ekintza horiek guztiak eraginkorrak izan daitezen, beharrezkoa da adingabearen eta haren familiaren inguruneek aktiboki parte hartzea. Beraz, ukazina da hezkuntza-ingurunea ezinbestekoa dela, bai tratu ona sustatzeko, bai prebentzio-ekintzak abian jartzeko, aurreko paragrafoetan adierazi den bezala. Baina ezinbestekoa da, era berean, babesaren esparruko prozesu espezifikoetan ere, ikuspegi pribilegiatua baitu alderdi espezifiko erabakigarrien gainean, bai ikerketan/ebaluazioan sakontzen parte hartu ahal izateko, bai esku hartzeko planen edozein egoeratan helburu espezifikoak garatu ahal izateko.

Azken grafikoan ikus daitekeenez, departamentuen arteko parte-hartzea ezinbestekoa ez ezik aukera egokia ere bada haurren eta haien zaintzaileen beharrei buruzko prozesu guztiak lantzerakoan, gizarte- eta komunitate-sarearen barruan.




Prozesuaren fase bakoitzak erakunde arduradunak eta laguntzaileak behar ditu. Erakunde arduradunen bizkar izaten da gauzatu beharreko lana, eta erakunde laguntzaileei, berriz, orpoz orpo aritzeko dei egingen zaie. Irizpide hauek hartuko dira kontuan banaketa egiteko:

Fase a	Entitate arduraduna	Entitate laguntzailea
Detekzioa	Osasun-zerbitzuak, hezkuntza-zerbitzuak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, polizia, familia, auzo-komunitatea edo edozein baliabide formal edo informal.	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.
Jakinaraztea	Osasun-zerbitzuak, hezkuntza-zerbitzuak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, polizia, familia, auzo-komunitatea edo edozein baliabide formal edo informal.	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.
Balioespena	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Oinarrizko Laguntza.	Osasun-zerbitzuak, ikastetxeak, familiaren edozein baliabide formal edo informal.
Esku-hartzea	Oinarrizko Laguntzako Gizarte Zerbitzuak / Bigarren Arretako Gizarte Zerbitzuak.	Osasun-zerbitzuak, ikastetxeak, familiaren edozein baliabide formal edo informal.

4. Detektatzea eta jakinaraztea

Aurreko atalean aipatu den bezala, komunitate bateko kide guztien erantzukizuna da lehentasun gisa adingabeak zaintzea eta haien ongizatea bermatzea, baita gurasoak eta tutoreak ere. Eta subsidiarioki zaindu behar dira, orobat, haur eta nerabeekin harreman zuzena duten profesional guztiak eta haien ongizatea ere (batez ere, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuetan jarduten dutenena, baina baita Gizarte Zerbitzuetan aritzen direnena ere), ikuspegi zabaletik zaindu ere.



Adingabeen premiak estaltzea funtsezko oinarria da haien ongizatea eta garapena bermatuta egon daitezen, eta funtsezkoa da komunitatea estaldura horretan inplikaturik egotea, komunitate horretan garatzen baita pertsona. Horretarako, komunitateko eragile guztiek eta, oro har, herritarrek jakin behar dute zein diren adingabe bat kalteberatasun- edo babesgabetasun-egoeran dagoela aurrekusteko lagungarri izaten ahal diren adierazleak. Gainera, sentsibilizazio berezia lortu behar da familien barruan defizit-, estres- edo krisi-egoerak detektatzeko, egoera horiek izan baitezakete eraginik haurrek edo nerabeek zaintzaileengandik jasotzen duten arretan.

Existitzen da haurren babesgabetasuna?

Gida honen helburua da beharrezko tresnak jartzea hezkuntza-sistemako profesionalen eskura, hezkuntza-jardunean gai izan daitezen zenbait ikaslek jasaten dituzten babesgabetasun-kasuak detektatzeko, bai eta kasu horiek bideratu ahal izateko erraztasunak ematea ere.

Haur izateak —haurtzaroan, nerabezaroan, gaztetan, eta, oro har, fase guztietan— kalteberatasuna du berekin inguruko faktore guztiekiko, eta kalteberatasun horretatik babesteko jarduten dute gurasoek eta zaintzaileek, baita haien garapena sustatzeko ardura duten erakundeek ere.

Pentsa genezake adingabeak lesio larriak argi eta garbi ageri dituenen bakarrik gertatzen dela babesgabetasuna, baina, zoritxarrez, hori baino gehiago da, eta batzuetan azaleratu gabe gelditzen dira, gizartean oso zabalduak dauden mitoen erruz:

Haurren babesgabetasunari buruzko mitoak eta gezurrezko usteak
Haurren babesgabetasuna ez da ohikoa.
Haurren babesgabetasuna alkoholikoek, drogazaleek edo erotuta dauden pertsonen eragiten dute.
Haurren babesgabetasuna klase sozial apaletan gertatzen da.
Haurren babesgabetasuna tratu txar fisikoak dira.
Haurren babesgabetasuna testuinguru pribatuetan gertatzen da beti.
Haurrei sexu-abusuak egitea ez da ohikoa.
Haurrek asmatu egiten dituzte sexu-abusuei buruzko istorioak.
Sexu-abusuen biktimak nerabeak izaten dira.
Sexu-erasotzailea eskrupulurik gabeko ezezagun bat izaten da.
Sexu-abusuak oldarkorrak eta basatiak izaten dira, eta zaurituta uzten dute biktima.

Adingabe batek bizi dituen zaintza-defizitak familia-intimitatean gertatzen dira, eta, hori hala den aldetik, zaintza horretan ikertzea intimitatean sartzea edo zaintza-figurekiko errespetu falta dela pentsatu izan da. Uste horrek bereziki zailtzen du halako kasuak antzematea. Horretaz gainera, adingabeek, oro har, ez dute gaitasunik beren egoera esplizituki jakinarazteko edo laguntza eskatzeko, eta normalean familiatik kanpoko agente batek jabetu behar du egoeraz.

Aipatutako *handicap*ak kontuan hartuta, haurtzaroko eta nerabezaroko babesgabetasun-auzien detekzioa adingabeek ondoezaren sintomatologia nabarmena agertzen duten kasuei lotuta egon da, eta horrek esan nahi du dagoeneko kronifikaturik dagoela gurasoen eta seme-alaben arteko interakzioen desegokitasuna. Eta, kasu horietara iritsitakoan, oso txikiak izaten dira aldatzeko aukerak eta are laguntza profesionalarekiko iragazkortasuna. Hori dela eta, gida honetan bereziki azpimarratzen da adingabeengan eta/edo fase goiztiarretan kalteen sintomak izan baino lehen detektatu behar direla babesgabetasun-egoerak, eta ahalik eta bizkorren jarri behar dela jakinaren gainean Gizarte Zerbitzuen Sistema (posta elektronikoz, jakinarazpen-fitxa helarazita), sistemen arteko bitartekaritza errazten duten figuren bidez (ikusi erantsitako direktorioa). Email edo jakinarazpen horiek kasuak jasotzeaz arduratzen den pertsonari zuzenduta joan behar dute, direktorioan ageri den bezala.

Horretarako, lehentasunezko zat jotzen da adingabeekin etengabe harremanetan jarduten duten profesionalak —hala nola hezkuntza-alorrekoek— ongi jakitea familia-dinamikei, adingabearen zainzaileen gaitasunei eta jardunari dagokienez izan beharreko inguruabarren berri, bai eta haurren edo nerabearen oinarrizko premiak estaltzeari buruzko jakintza izatea ere, haur eta nerabeek egiaz babesturik egon daitezen (ikusi gida honetako 2. eranskina).

Nola hautematen ahal dituzte halako egoerak hezkuntza-arloko profesionalak?

Ez da zaila babesgabetasun-egoera bat identifikatzea, lehenik eta behin adingabearengan pentsatzen bada. Eta errazagoa izanen da, gainera, ezagutza eta trebetasun jakin batzuk izanez gero. Horiek ematea da gida honen helburu nagusietako bat.

Babesgabetasun-egoera bat detektatzeko, bi dira funtsezko tresnak: behaketa eta informazioa.

- **BEHATU** sistematikoki haurra hainbat unetan: ikasgelan, aisialdian, kanpoko itxura, beste heldu eta haur batzuekiko harremanak, ikastetxera joaten den, familia-harremanak... Behaketa horren bidez, zenbait adierazle antzematen ahalko dituzu, arrisku-egoerarik edo babesgabetasun-egoerarik ba ote dagoen balioesteko.
- **INFORMATU** haurraren familia- eta gizarte-inguruneari buruz, bildu aldez aurretik irakasleei buruzko informazioa, halakorik izan badu.
- **HITZ EGIN ADINGABEAREKIN** (elkarrizketa, 1. eranskina): Solasaldiaren helburua da gure susmoaren arrazoa ulertzen saiatzea. Erabateko arreta eskaini behar zaio haurrari, eta interesa ez da jarri behar esaten duenean bakarrik, baizik eta erreparatu behar zaio jarrerarekin adierazten duenari ere. Haurrak sentitzen badu norbaitek entzuten eta kasu egiten diola, errazagoa eginen zaio mintzatzea eta ulertuta sentitzea; konfiantza- eta segurtasun-giroa sortzea da esku hartzeko edozein prozesuren lehen urratsa.
- **HITZ EGIN GURASOEKIN EDO TUTOREEKIN**, zenbait alderdiren berri izateko:
 - Familia une zail bat igarotzen ari ote den edo krisi iragankor bat bizi ote duen.
 - Haurrari laguntza eskaintzen ote dioten egoera zail horretan.
 - Portaera-eredu zehatzak eta hezkuntza-jarraibide argiak eskaintzen ote dizkieten.
 - Arduratzen ote diren egunez egun hura zaintzeaz.
 - Ea familiak ikastetxearen laguntza onartuko lukeen bere eta ardurapeko adingabearen egoera hobetzeko.

Senitartekoen erreakzioaren berri izatea lagungarria izaten ahal da gai horri nola heldu behar diogun bereizteko eta argitzeko.

Lehenengo fase horretan, komeni da lortzen dugun informazio guztia argi eta garbi biltzea.

Era berean, hezkuntza-esparruak halako egoerak hautemateko, beharrezkoa da profesionalen artean sentsibilitatea sortzea adingabeen zaintzari eragiten ahal dioten egoerak eta/edo faktoreak detektatzeko, hau da, arrisku-faktoreen berri izateko.

- a) Ba ote den familia-dinamikei eragiten dieten bat-bateko estres-egoerarik, eta, beraz, adingabeen arretan defizita eragiten ahal duenik. Adibidez:

- Familiako kide garrantzitsuak bat-batean eta/edo traumatikoki galtzea.
- Gurasoen lan-baldintzak aldatzea.
- Familiako edozein kideri gaixotasun larriren bat diagnostikatzea.
- Eta abar.

b) Zaintzan eragina izan dezaketen arrisku- eta/edo kalteberatasun-faktoreak agertzea: arrisku-faktore horiek izateak ez du esan nahi babesgabetasun-egoera gertatzen denik, baina bai adingabea kalteberatasun-egoeran jartzen duela. Eskura ditugun ikerketen arabera, arrisku-faktoreek askotariko planoetan eragiten dute, eta lotura estua dute gurasoekin edo tutoreekin, familia-dinamikekin, gizarte-ingurunearekin eta adingabeen ezaugarriekin:

- Arrisku-faktore indibidualak (Wolfe, 1987; Díaz Aguado *et al.*, 1995; Milner, 1990):

Gurasoenak	Adingabeenak
<ul style="list-style-type: none"> • Gurasoa tratu txarren/zabarkeriaren biktima izan da haurtzaroan, eta ez du hazteko eredurik. • Gurasoak hiperreaktibotasuna ageri du adingabearen eskaeretik; esaterako, negar egitean edo jolastean, eta erantzun neurrigabeak eta inpultsiboak ematen ditu. • Estresarekiko tolerantzia txikia, eta, ondorioz, erraz egiten dute gainez adingabeen jokabideak direla eta. • Gatazkak konpontzeko trebetasun eskasa: ukatu egiten dituzte arazoak, isolatu egiten dira edo modu oldarkorrean erreakzionatzen dute. • Gabeziak ageri dira seme-alaben hezkuntzak planteatzen dituen arazoak konpontzeko estrategietan. • Nahasmendu emozionalak, mentalak eta/edo fisikoak, adingabeen beharrak behar bezala ulertzea eta artatzea eragozten dietenak. • Autoestimu txikiaren eta beste pertsona batzuekiko mendekotasun emozionalaren ondorioz, beren premiak lehenesten dituzte seme-alabenak lehenetsi beharrean. • Ludopatiarekin, droga-mendekotasunekin edo alkoholismoarekin lotutako arazoak, adingabeen beharrak ulertzea eta artatzea eragozten dutenak. • Seme-alaben tokian jartzeko zailtasunak eta sentsibilitate falta. • Jokabide eta kontzeptu zurrinak, maila intelektual apala, eta, ondorioz, seme-alaben behar aldakorretara egokitu ezina. 	<ul style="list-style-type: none"> • Garaia baino lehen jaioa, pisu gutxirekin eta aldarte “zailekoa”. • Defizit fisikoak edo psikikoak. • Gaixotasun neurologikoak, sortzetikoak edo eskuratuak. • Arazo mediko kronikoak edo garapenean izandako atzerapenak. • Jokabide-arazoak (agresibitatea, oposizioa, gezurrak, eskola-absentismoa eta abar). • Gurasoen itxaropenak ez betetzea (sexuagatik, osasunagatik, erakargarritasun fisikoa, eta abar).

- Familiako arrisku-faktoreak (De Paul *et al.*, 1988; Crittenden, 1985; Cerezo, 1992):

Familia-osaerari dagokionez	Familia-interakzioei dagokienez
<ul style="list-style-type: none"> • Familia-kohesio eskasa. • Mugatu gabeko rola eta funtzioak. • Guraso bakarreko familiak. • Seme-alaba ugariko familiak. • Guraso nerabeak edo heldugabeak. • Familia berreginak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ezkontideen arteko liskarrak. • Indarkeria fisikora zein psikologikora jotzea gatazkak konpontzeko estrategia gisa. • Seme-alaben pertzepzio desitxuratua: adingabeen jokabidea modu negatiboan ulertzeko joera —probokatzeko arituko balira bezala—. • Gurasoen itxaropen ez oso errealistak seme-alaben portaerari eta/edo gaitasunei dagokienez. Batzuetan, beren gain hartzen ahal dituztenak baino erantzukizun handiagoak egotzen zaizkie, edo gutxietsi egiten dira haien gaitasunak. • Gurasoen ezintasun-sentimenduak eta seme-alabekiko gatazkak. • Gurasoen diziplina-estiloa laxoegia edo zigortzaileegia da, eta zailtasunak sortzen dira adingabeen jokabidea kontrolatzeko. • Gutxiagitan izaten dira haur edo nerabeenganako portaera positiboak, eta adingabeekiko elkarreragin eta komunikazio txikiagoa.

- Faktore soziokulturalak (Gracia eta Musitu, 1993; Garbarino *et al.*, 1986):

- Langabezia, pobrezia edo lan-arazoak.
 - Gizarte-isolamendua, laguntza- eta informazio-sarerik ez izatea eragiten duen heinean.
 - Nortasun- edo kolektibitate-sentimendurik ez duen eremu edo auzo batean bizitzea, zeinean pobrezia, marjinazioa eta indarkeria baitira bizi-baldintza nagusiak.
 - Familiaren pribatutasuna zorrotzegi defendatzea balio gisa.
 - Emakumeekiko, hurrekiko eta gurasotasunarekiko balio eta jarrera negatiboak.
- c) Arrisku-egoeretan kontuan hartu behar da gurasoek adingabeei ematen dieten tratua, bai eta horrek adingabearen garapenean edo bilakaeran duen inpaktua ere. Hala, bi egoera-mota bereizten dira: alde batetik, gurasoek gabeziak izatea adingabeak zaintzeari dagokionez eta horrek ez eragitea kalte fisikorik, emozionalik, sozialik, kognitiborik edo sexualik adingabeari (hau da, arrisku arineko egoerak), eta, bestetik, gurasoek tratu desegokia ematea seme-alabei, eta seme-alabek, jasotako tratuaren ondorioz, etorkizuneko garapenean kalte nabarmena izatea edo kalte nabarmenak izateko aukera (larritasun ertaineko, larriko edo oso larriko babesgabatasun-arriskuarekin lotutako egoerak).

Zer seinaleri erreparatu behar zaie? Hezkuntzaren alorretik ikus daitezkeen adierazleak

Haurra edo nerabea, ziur aski, ez da gai izanen bere burua defendatzeko helduen tratu txarrak, zabarkeria edo abusuak izanez gero, ez dakielako edo ez duelako laguntzarik eskatzen ahal. Horrek zaurgarritasun bereziko egoeran jartzen ditu.

Babesgabetasuna bizi duten hurrek arazo ugari izaten dituzte garapen ebolutiboan: gabezia emozionalak, jokabidearekin loturikoak eta soziokognitiboak. Horrek guztiak eragotzi egiten du haurren nortasuna egoki garatzea. Horrexegatik da garrantzitsua babesgabetasuna lehenbailehen detektatzea eta erantzun egokia bilatzea.

Haur horiek dituzten arazoek izaten dute adierazpenik, hala nola jokabidean, fisikoki eta/edo esparru emozionalean. Batzuetan pentsa dezakegu haur edo nerabe hori alferra dela, ez duela errendimendu egokirik, oldarkorra eta gogaikarria dela; pentsatu ere pentsatzen ahal dugu alferrik dela harekin.

Alabaina, adierazpen horiek alarma-seinale gisa interpretatu behar ditugu, zerbait gaizki doala haren bizitzan, ez dugu hartu behar egoera aldaezintzat. Adierazle deitzen diegu alarma-seinale edo arreta-argi horiei, arrisku-egoera edo babesgabetasuna ekar baitezakete.

Jarraian, behaketan lagungarri izaten ahal zaizkigun adierazle batzuk azalduko ditugu. Hala ere, kontuan izan behar da adierazleok berez ez direla nahikoa babesgabetasun-egoera bat egiaz badela frogatzeko. Gainera, aintzat hartu behar dugu adierazpenen maiztasuna, baita nola, non eta norekin gertatzen diren ere. Dena den, garbi izan behar dugu: zenbait adierazle hautemanda ere, gerta liteke ez zehaztea babesgabetasun-egoera bat, eta baliteke beste arazo-motaren bat izatea.

Hona hemen, besteak beste, seinale edo adierazle horietako batzuk:

Haurren edo nerabearen adierazle fisikoak	
Lesioak izatea	Lehen mailako beharrak: osasuna, higiena eta elikadura
<ul style="list-style-type: none">• Seinale fisiko errepikatuak (ubelduak, mailatuak, erredurak...).• Lesioari buruzko azalpen arraroak, sinesgarritasun eskasekoak.• Ebakiak izatea maiz.• Hezur-haustura jarraituak.	<ul style="list-style-type: none">• Haurrak eta nerabeak zikin agertzea, usain txarrarekin, eguraldirako desegokia den arroparekin...• Etengabe nekea eta apatia izatea (ikasgelan lo hartzen dute).• Gosaldu gabe joaten dira eskolara.• Bezperan otorduren bat ez zutela egin kontatzea.• Neurrigabeko gosez jaten dute.• Zorriak eta parasitoak agertzea.• Oinarrizko zainketa medikoak falta izatea.• Esfinter-kontrol desegokia.

Haurren edo nerabearen portaera-adierazleak			
Gizarte- eta familia-harremanetan	Jokabidean eta nortasunean	Errendimendu akademikoa	Sexualitate a
<ul style="list-style-type: none"> Haurrak edo nerabeak ez du joan nahi etxera (ohi baino denbora gehiago ematen du ikastetxean, jolastokian edo inguruetan). Badirudi gurasoen edo zaintzaileen beldur dela. Bakarrik itzultzen da etxera. Ez du familiaz hitz egin nahi. Adierazten du inork ez duela zaintzen. Asteburuaren ondotik, okerrago bueltatzen da ikastetxera (triste, zikin, eta abar). Guraso-lanak egiten ditu nebarreba txikiekin. Aldi baterako absentziak, familiari lanean laguntzeko. Adierazten du ez diotela uzten etxean sartzen. Kalean harat-honat ibiltzen da etengabe. 	<ul style="list-style-type: none"> Eskola-jokabidea nabarmen aldatzea ageriko arrazoirik gabe. Jokabide oldarkorrek eta/edo kasketaldiak, larriak eta iraunkorrek. Jokabide antisozialak: ihesak, bandalismoa, ebasketa txikiak eta abar. Harreman zakarrak eta urrunak. Jarrera hiperzaintzailea (alerta-egoeran, mesfidati...). Suizidio-saiakera eta depresio-sintomatologia. Jokabide-erregresioak (oso jokabide infantilak bere adinerako). Beldurrak airean jartzen da beste haur batzuekin negar egiten dutenean. Zauriak egiten dizkio bere buruari. Materiala gaizki zaindu eta txikitu egiten du. Negar egiten du arrazoirik gabe. Arduratsuegia da. Bakarrik, triste eta isilik egoteko joera. Atentzinoa eman nahi du etengabe. Ez du bere buruaz eta/edo familiaz hitz egin nahi izaten. Atseginegia dirudi, pasiboa, ez da batere exigentea. Mesfidati agertzen da helduen promesekin edo jarrera positiboekin. Lagun gutxi ditu ikastetxean. Mina izaten du maiz, ageriko arrazoirik gabe. Elikadura-arazoak (oso tripontzia edo apetitugalera). 	<ul style="list-style-type: none"> Ez du interes eta motibazio handirik eskolako lanak egiteko. Uko egiten dio taldeko jardueretan laguntzeari. Eskolara behin eta berriz ez joatea, justifikaziorik gabe. Atzerapenak garapen fisiko, emozional eta intelektualean. Kontzentrazio-gaitasuna galtzea. Bat-bateko aldaketak eskola-errendimenduan. Nekatu egiten da eskolako lanak egiten. Arazoak ahozko hizkuntzan. Gaizki egin ohi ditu eskolako lanak. Ez dauka eskola-materialik. 	<ul style="list-style-type: none"> Sexu-jokabide esplizitua, bere adinerako desegokiak diren jokoak egitea eta ezagutzak izatea. Larritasuna eragiten dio beste pertsona batzuen aurrean arropa aldatzeak. Bere adinerako sexu-adierazpen desegokiak erabiltzen ditu. Sexu-portaera ezohikoak beste haur batzuekin, jostailuekin, bere buruarekin. Sedukzio-jokabideak helduekin. Esertzeko edo ibiltzeko zailtasunak. Beldurra helduekin. Haurren eta helduaren arteko harreman sekretua, erreserbatua eta baztertzaila. Gurasoek gehiegitxo babesten dituzte seme-alabak, mugatu egiten dute beste hurrekin harremanak izatea, batez ere beste sexukoak badira.

5. liburukia. Haurrak babestu beharra egokitzen denean esku hartzeko gida, Foru Komunitateko hezkuntza-

Gurasoengan eta/edo zaintzaileengan adierazle hauek ikus ditzakegu:

Gurasoengan eta/edo zaintzaileengan ager daitezkeen adierazleak

- Badirudi ez direla arduratzen haurraz.
- Ez dira inoiz joaten ikastetxeko hitzorduetara eta bileretara.
- Jendaurrean mespretxatzen eta gutxien dute haurra.
- “Jabetza” gisa ikusten dute haurra (nahi dudana eginen dut nire seme-alabekin, nireak baitira).
- Zailtasunak dituzte ezkontzan.
- Haurrari ez diote uzten kontaktu sozialik izaten eskolarako joan-etorrietan.
- Gurasoak etxetik kanpo egoten dira beti (inoiz ez dute astirik...).
- Ondasun materialekin konpentsatzen dute seme-alabekin duten harreman pertsonal eta afektibo eskasa.
- Gehiegi kontsumitzen dituzte substantzia toxikoak (alkohola eta/edo drogak).
- Tratu desberdina senideen artean.
- Ez dituzte justifikatzen seme-alaben eskola-absentziak.
- Diziiplina zurrun eta autoritarioa justifikatzen dute.
- Haurraren jokabideak mugarik jarri gabe onartzen eta barkatzen dituzte.
- Umea gaiztotzat ikusten dute.
- Haurrarekiko gehiegizko itxaropenak sortzen edo adierazten dituzte.
- Azalpen ilogikoak, kontraesankorrak edo sinestezinak ematen dituzte, azalpenik ez dutenak.
- Normalean, haurraren adinerako desegokia den diziiplina erabiltzen dute.
- Jeloskorrak dira, eta neurritz kanpo babesten dute haurra.

Haurren premiak, haurren babesa sustatzen duten alderdi nagusiak eta haurrak babesteko oinarriak hondatzen ahal dituzten arrisku-faktoreak zein diren ikusi ondotik, bada aipatu beharreko kontu bat: gurasoek edo zaintzaileek adingabeei ematen dieten tratu desegokiak edo gabeziek sortuko dituzte aztergai ditugun babesgabetasun-tipologiak. Tipologia horietako bakoitzean, lau larritasun-maila aurreikusten dira (arina, ertaina, larria eta oso larria), faktore hauen arabera: a) gurasoen portaerek beren ardurapeko adingabeei dagokienez duten desegokitasun-maila; b) jokabide horiek adingabearen ongizatean eta garapenean duten inpaktua; eta c) egoera arindu dezaketen beste figura batzuk izatea inguruan.

Taula honetan daude laburturik Nafarroako Foru Komunitatean aurreikusten diren babesgabetasun-tipologiak:

1. Tratu txar fisikoa

1.1. Tratu txar fisikoa

Haurrak edo nerabeak kalte fisiko bat izan du edo izateko arriskua du, gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen eraso ez-ustekabekoen ondorioz.

1.2. Janaria eta ura nahita kentzea

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak nahita utzi du haurra edo nerabea janaririk edo urik gabe gutxienez egun batez (aldi are txikiagoa haur txikien kasuan), edo janari gutxi eta elikadura-kalitate eskasekoa eman dio zenbait egunez. Horrek ondorioak eragin ditu edo eragin ditzake haren osasunean eta/edo garapenean.

1.3. Konfinamendua edo murrizketa fisikoa

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak nahita mugatu du adingabearen jarduera fisikoa. Horrek kalte fisikoa edo psikikoa eragiten du edo eragiten ahal du.

2. Zabarkeria

2.1. Premia fisikoekiko zabarkeria

2.1.1. Elikadura

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak elikadura desegokia ematen dio adingabeari, eta horrek ondorioak eragiten ditu edo eragiten ahal ditu haren osasunean eta/edo garapenean.

2.1.2. Osasun fisikoa zaintzea

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak modu desegokian erantzuten die adingabearen higiene-, osasun- eta atsedeen-beharrei, eta horrek ondorioak eragiten ditu edo eragiten ahal ditu haren osasunean edo garapen fisikoan, bai eta errendimenduan ere.

2.1.3. Jantziak

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez dio ematen jantzi egokirik adingabeari —baldintza onekoak eta eguraldira egokituak—, eta horrek eragina du edo izaten ahal du haren osasunean eta/edo eguneroko jardueretan parte hartzeko aukeran.

2.1.4. Higiene pertsonala

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak modu desegokian artatzen ditu adingabearen higiene pertsonaleko errutinak, eta horrek berdinekiko edo beste pertsona batzuekiko harremanari eragiten dio edo eragiten ahal dio.

2.1.5. Etxebizitzaren higiene-baldintzak

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak modu desegokian artatzen du familia-etxebizitzaren higiena, eta horrek eragina du edo izaten ahal du adingabearen osasunean edo garapen fisikoan.

2.1.6. Etxebizitzaren egonkortasuna eta bizigarritasun-baldintzak

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez dio ematen adingabeari etxebizitza egonkor bat, behar bezala hornitua eta haren intimitatea babesteko nahikoa leku duena.

<p>2.2. Zabarkeria segurtasun-premiak asetzeari dagokionez</p>
<p>2.2.1. Etxebizitzaren segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez dio ematen arriskurik gabeko etxebizitzarik adingabeari, eta/edo jokabide ausartegiak egiten ditu. Horrek kalte larria eragin dio edo eragiten ahal dio adingabeari.</p>
<p>2.2.2. Gainbegiratzea Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak desegoki gainbegiratzen du adingabea, bai etxetik kanpo, bai etxean bertan, edo gaitasunik gabeko pertsona baten ardurapean uzten du. Horrek arriskuan jartzen du edo jartzen ahal du adingabearen bizitza.</p>
<p>2.2.3. Beste pertsona batzuek eragindako babesgabetasun larriko egoeretatik babestea Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez du behar bezala babesten adingabea hirugarren pertsonen tratatu txar edo erasoetatik.</p>
<p>2.3. Prestakuntza-premieko zabarkeria Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez dute laguntzen adingabea ikastetxera joan dadin, eta/edo ez dituzte hartzen beharrezko neurriak eskola-eremuko zailtasunak konpontzeko. Egoera horren ondorioz, adingabeak zailtasunak ditu eskolan.</p>
<p>2.4. Behar psikikoekiko zabarkeria</p>
<p>2.4.1. Interakzioa eta afektua Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez die kasurik egiten adingabearen interakzio-eskaerei, eta, horren ondorioz, adingabeak kalte psikikoa izan du edo izaten ahal du.</p>
<p>2.4.2. Estimulazioa Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ez dio ematen behar bezain esperientzia aberasgarririk edo hezkuntza-esperientziarik adingabeari eskola-eremutik kanpo, eta, ondorioz, adingabeak kalte psikikoa izan du edo izateko arriskuan dago.</p>
<p>2.4.3. Arazo emozional larriarako arreta espezifiko Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak inhibitu edo atzeratu egiten dira arazo emozional larriarako tratamendu psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzeko garaian.</p>
<p>2.4.4. Arauak, mugak eta balio moral positiboak transmititzea Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak inhibitu egiten dira edo zailtasunak dituzte arauak edo mugak ezartzeko, eta horrek arazoak sortzen ditu edo sortzen ahal ditu adingabearen portaeran edo gizarte-egokitzapenean.</p>
<p>3. Sexu-abusua</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea osatzen duten guraso, tutore, zaintzaile edo senideek eta adingabeak kontaktu edo interakzio bat izatea zeinean sexu-ekintzetarako eta/edo adindunaren sexu-estimulazioa lortzeko erabiltzen baita haurra edo nerabea.</p>

4. Sexu-esplotazioa

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak adingabeak erabili, adoretu, baimendu edo bultzatu egiten ditu prostituzioan aritzeko, ikuskizun exhibizionistetan edo pornografikoetan esku hartzeko edo material pornografikoetan irteteko. Sexu-jarduera horiek izan dezakete adingabearen eta beste pertsona baten arteko kontaktu fisikoa, baina ez nahitaez.

5. Tratu txar psikologikoak

5.1. Tratu txar emozionala

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak kalte psikikoa eragiten duen edo eragiten ahal duen jokabideak ditu (errefusatzeta, isolatzea, gehiegi eskatzea eta abar).

5.2. Gurasoen arteko gatazketan eta gurasoen eta haur edo bizikidetzeta-nukleoan nerabearentzat garrantzitsuak diren beste senide batzuen arteko gatazketan instrumentalizatzea.

Gurasoetako batek beste gurasoari edo senide garrantzitsu bati kalte egiteko erabiltzea adingabea. Horrek kalte psikikoa edo leialtasun-gatazka eragiten dio adingabeari, eta/edo ezarrita daukaten loturari eragin dio edo eragiten ahal dio.

5.3 Genero-indarkeriako edo etxeko indarkeriako egoeren eraginpean egotea

Adingabea bizi den familia-testuinguruan, ohikoa da familiako kideen artean indarkeria fisikoa eta/edo hitzekoa gertatzea. Horrek kalte psikikoa eragin dio edo eragiten ahal dio adingabeari.

6. Abandonua

6.1. Abandonua

Gurasoak edo zaintzaileek bakarrik uzten dute adingabea, itzultzeko asmorik gabe. Hirugarren pertsonen esku uzten dute erabat zaintza, eta/edo ustekabeko aldaketa ugari gertatu dira zaintzaileetan. Egoera horrek alterazio emozionalak eragin dizkio adingabeari.

6.2. Etxetik kanporatzea edo ez uztea etxean sartzen

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak etxetik kanporatu dute adingabea edo galarazi egin diote etxean sartzea, eta horrek arrisku-egoeran jarri du adingabea.

7. Guraso(ar)en ezintasuna hauraren edo nerabearen jokabidea kontrolatzeko

Bi gurasoek edo haietako batek uko egiten diote seme-alaben portaera modu adaptatiboan kontrolatzeko eta maneiatzeko erantzukizunari, edo modu nabarmen desegokian eta kaltegarrian saiatzeko dira egiten.

8. Adingabeak galbidean jartzea

Helduek bultzaturiko jokabideak, jokabide antisozialak edo desbideratuak indartzen dituztenak eta haurra edo nerabea normaltasunez integratzea eragozten dutenak, bereziki agresibitatearen, sexualitatearen eta drogen bidetik eramanda. Hiru motatan sailkatzen dira.

8.1. Delinkuentziara bultzatzea

8.2. Bizimodu desegokia

8.3. Indarkeriara edo beste pertsona batzuk mendean hartzera bultzatzea

9. Bestelako tipologiak
<p>9.1. Jaio aurreko tratu txarra</p> <p>Haurdunaldian drogez edo alkoholaz abusatzea, edo amaren edozein bizi-zirkunstantzia, zeinak eragiten baitu edo eragiten ahal baitu jaioberriak gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo sensorial larriak izatea, edo mendekotasun fisikoaren sintomekin edo amaren substantzia-kontsumoari egotz dakizkiokeen beste alterazio batzuekin jaiotzea.</p> <p>Tratu txar hori aitari edo emakume haurdunaren bikotekideari ere aplika dakiok, baldin eta tratu txar horiek fisikoak badira edo ez badie erantzuten haren beharrei.</p>
<p>9.2. Eskaletza</p> <p>Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak eskean jarduten du adingabearekin, eta, horren ondorioz, adingabea ez da joaten ikastetxera eta/edo oztopatu egiten dira haren gizarte-jarduerak.</p>
<p>9.3. Lan-esplotazioa</p> <p>Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak helduek egin beharko lituzketen lan ordainduak eginarazten dizkiote etengabe adingabeari, eta, horren ondorioz, eragotzi egiten dira adingabe horren jarduera/beharrizan sozialak eta/edo eskolakoak.</p>
<p>9.4. Münchhausenen sindromea:</p> <p>Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak etengabeko ospitaleratzeak eta azterketa medikoak eragiten dizkio adingabeari, eta, horretarako, itxurazko sintoma fisiko patologikoak argudiatzen dituzte, edo aitak edo amak berak modu aktiboan sortutakoak (adibidez, haurrari substantziak inokulatuz).</p>
10. Babesgabetasun larria edo babesgabezia eragin dezaketen beste egoera espezifiko batzuk

Laburbilduz, proposamen honek eskatzen du hezkuntza- eta osasun-sistemetako eta Gizarte Zerbitzuetako profesional guztiek jakin behar dutela zer premia dituzten adingabeek beren arlo guztietan (*Haurren eta nerabeen oinarrizko premien taxonomia* [López, F. 1995], 2. eranskina). Era berean, eskatzen du esparru horietako bakoitzean garatu behar direla haurren eta nerabeen tratu onari buruzko sentsibilizazio-programak. Horretaz gainera, haurren eta nerabeen gizarte-zerbitzuei buruzko ikuspegi atsegina goa izanzen dute profesionalek eta, oro har, herritarrek. Hala, hautsi egiten dira kontrolari buruz aldeztu aurretik ditugun ideiak, eta gehiago hurbilduko da zailtasun-egoera posibleetan laguntzeko ideia.

Proposamen horrek adingabeak babesteaz arduratzen direnen lankidetzat, parte-hartze eta koordinazio handia eskatzen ditu, bai haurrei eta nerabeei tratu ona emateko politikak garatzeko — zeinek lotura estua baitute sustapenera edo prebentzio unibertsalera bideratutako jarduerekin—, bai prebentzio selektibora edo errehabilitaziora bideratutako jarduerekin lotutako kalteberatasun- edo arrisku-egoerei aurre egiteko.

Amaitzeko, eta aurretik aipatutakoa kontuan hartuta, hauek hartzen dira detekzio-agentetzat:

- a) Gizarte-zerbitzuetatik kanpokoak: baliabide komunitarioak, ikastetxeak, osasun-zentroak...
- b) Gizarte-zerbitzuei dagozkienak: aipatutako zerbitzuen programak.
- c) Babes- eta babesgabetasun-prozesuetan parte hartzen dutenak, eta, beraz, prozesu guztietako laguntzaileak, bai barnekoak (hezkuntza), bai kanpokoak (Gizarte Zerbitzuen Sistema).

5. Jakinarazpen-orria

Detekzioaren eta jakinarazpenaren gaineko atalean aipatu den bezala, ezinbestekoa da profesionalak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako erreferentziako pertsonak jakinaren gainean jartzea, babesgabetasun-susmorik izanez gero. Gainera, gida osoan eta eskuliburuan aipatzen denarekin bat, planteatzen den lan-filosofiak adierazten du nahitaezkoa dela kontuan hartzea kalteberatasunak, zailtasunak, arrisku-faktoreak edo haurren babesaren ardatzekin bat ez datozen bestelako zernahi inguruabar, haurren babesgabetasunarekin loturik ahalik eta prebentzio-maila handienarekin jokatu ahal izateko.

Hori esan ondotik, oso garrantzitsutzat jotzen da gertutik jarraitzea adingabeak kalteberatasunen bat ageri ote duen edo arrisku-faktore bat edo gehiago ote dituen —pertsonalak, familiakoak, eta abar—, sisteman bertan laguntza eskaini ahal izateko.

Norengana jo behar da jakinarazpena egiteko?

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek jasoko dute hezkuntza-sistemaren jakinarazpena. Haiek egiaztatuko dute susmoa, eta informazioa sakonduko dute.

Zerbitzu horiek gaiturik daude familia-arazoetan eta haurren arazoetan esku hartzeko, eta bereizgarri hauek izaten dituzte:

- Sistemaren baliabide guztietara sartzeko atea dira, eta ezagutzen dute gatazka sortzen den tokiko gizarte-ingurunea.
- Zuzeneko eta berehalako arreta eskaintzen dute; kasua aztertzen dute, bai eta zer berreskuratze-, prebentzio- edo sustapen-jarduera behar diren balioetsi ere.
- Badituzte haurrekin, familiarekin eta ingurunearekin esku hartzeko programak.
- Esku hartzen duten kasuetan, erakundearen berezko baliabideak aplikatzen dituzte, edo, beharrezkotzat jotzen denean, Gizarte Zerbitzuen Bigarren Mailako Arretara bideratzen dute (Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordeztza).

Nola jakinarazi hautemandako egoera?

Informazio-bilketa errazteko eta bateratzeko, jakinarazpen-orria erabiltzea proposatzen da.

Orri honetan, oro har, adingabearen eta familiaren identifikazio-datuak jasotzen dira, eta labur-labur azaltzen da txostena eragin duen egoera edo gertakaria, bai eta ustez txarrak eman dituen pertsonak haurrekin edo nerabearekin zer harreman duen ere. Jarraian, behatutako edo jakindako adierazleak zehazten dira (fisikoak, portaerazkoak...), eta, azkenik, informazioa ematen duen pertsonaren edo erakundearen datuak jasotzen dira.

Informazio hori ongi aukeratzeak eta antolatzeak erraztu egiten du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egitekoa, haiek jasotzen baitituzte jakinarazpenak.

Orobat, garrantzitsua da jakitea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek berrikusi eta egiaztatu egingen dituztela jasotzen dituzten datu guztiak haurrari edo nerabeari eta haren familiari buruzko erabakia hartu

5. liburukia. Haurrak babestu beharra egokitzen denean esku hartzeko gida, Foru Komunitateko hezkuntza-

baino lehen, eta sakondu egingen dutela informazio hori, kasu bakoitzaren lehen ebaluazioa egiteko eta, hala, babesgabetasun-egoerarik ba ote den zehazteko.

Larrialdi-egoera: balioesteko irizpideak


Egoera jakin batzuetan, gerta daiteke egitate jakin batzuk antzematea edo datu espezifiko batzuk biltzea, eta, haien bidez, hezitzaile-taldeak planteatzea adingabe batek premiaz behar duela babesa.

Kasu hauetan bakarrik gertatuko da egoera hori:

- Adingabearen oinarrizko osasuna edo segurtasuna arriskuan dagoenean.
- Berehalako larritasun-egoera bat baldin bada.
- Ez badago adingabeaz arduratu daitekeen familiako kiderik edo atxikimendu-figurarik.

Faktore horiek ageri dituen egoera bat planteatzen denean, beharrezkoa da Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuak jakinaren gainean jartzea (Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordeztza), erakunde horrek baitu eskumena adingabeari behar duen babesa berehala emateko.


Kasua bideratzeko, nahikoa da arrazoizko susmo bat izatea, eta ez da beharrezkoa horri buruzko ikerketa bat egitea, ezta gertatzen ari denaren erabateko ziurtasuna izatea ere.



Kontuan hartu behar da presazko kasuetan badela denbora bat jakinarazpenaren eta erakunde publiko eskudunaren esku-hartzearen artean, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren arabera. 13. artikulua:

“Adingabe bat arriskuan edo babesik gabe dagoela antzematen duten pertsona eta agintari guztiek, batez ere lanbidea edo betekizunak alor horretan dituztenek, aipatu egoera jakinaraziko die agintariei edo haren agente hurbilenei, adingabeari berehala behar duen laguntza emateaz gainera.”

Jarraian agertzen den grafikoan, sexu-abusuen edo tratu txar fisiko larrien ondoriozko premiazko egoera guztietan egin beharreko urratsak jasotzen dira. Beraz, ikastetxeak laguntza eman beharko du:



Babesgabetasun-kasu oso larrietarako protokoloa

Larrialdi-egoera (ahozko kontakizunak eta/edo adierazle fisikoak; aurreko 72 orduetan gertatutako egoera bati egiten zaio erreferentzia):

- **Familia barruko sexu-abusua ez bada** edo familiako norbaitek eta/edo arduradun batek babesten badute adingabea, familia jakinaren gainean jarri behar da:

- Aholkularitza.

- Izapideak egiteari buruzko informazioa ematea: azterketa medikoa, salaketa, kaltea berroneratzeko tratamendu-aukerak (Delituaren Biktimari Laguntzeko Bulegoa, Osasun Mentalak emandako arreta, Gizarte Zerbitzuek emandako laguntza psikoedukatioak).

Jarduketak esku hartzen duten sistemekin koordinatzea.

• Adingabea ez badago babestuta edo familia barruko sexu-abusua ageri bada:

- Osasun-zentrora lagundu, pediatria-zerbitzuan azterketa medikoa egin diezaioten. Zentroak erabakiko du Guardiako Epaitegiari eskatu ala ez auzitegi-mediku bat bertaratzea.

- Nolanahi ere, FAX bidez jakinaraziko diete beti Guardiako Epaitegiari eta Adingabeen Fiskaltzari.

- Foruzainen presentzia eska daiteke 112 telefonora deituta osasun-zentrora eramateko eta adingabearen aitortzea jasotzeko.

• Gertakariak larriak badira, Guardiako Epaitegiak erabaki dezake Adingabekoentzako Behaketa eta Harrera Zentro batera eramatea eta/edo ezartzen ahal ditu babes-neurriak (esaterako, ustezko erasotzailea urruntzeko agindua).

• Era berean, zentroratzea ez bada gertatzen Fiskaltzaren edo epaitegiaren bidez, Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordeak kautela-neurri bat har dezake; hau da, adingabearen zaintza behin-behinean hartzea larrialdi-familia batean (0-6 urtetik beherakoak) edo Adingabekoentzako Behaketa eta Harrera Zentroran eramatea.


Hori aipatu ondotik, jarraibide orokor batzuk ematen dira, jakinarazpen-fitxa betetzeko moduari buruz —halere, dokumentuan bertan ageri dira zenbait argibide, atal espezifiko batzuk betetzeko moduari buruz—.

• Jakinarazpen-fitxaren bidez ematen zaio beste profesional bati babesgabetasun-egoera baten susmoaren berri, eta, hori hala den heinean, dokumentu konfidentzialtzat hartzen da: kasua bideratzen duen pertsonak edo taldeak eta fitxaren hartzaileak bakarrik eskuratzen ahalko dute. Gainera, argitu behar da komenigarria dela familiei auziaren gaineko informazioa ematea, ez daitezen sentitu mehatxatuta, informazio horrekin eginiko mugimenduak gardenak izan daitezen eta ahal den neurrian lagundu dezaten.

• Jakinarazpen-fitxak aurkezpen-atal bat du. Han, indarrean dagoen legediaren laburpen bat jasotzen da, haurrak sustatzeko eta zaintzeko printzipioei buruzkoa; horretaz gainera, helduek babesgabetasun-egoera posibleei erantzuteko duten erantzukizunari buruzko legeria ere jasotzen da. Era berean, bada datuen babesari buruzko paragrafo labur bat ere.

• Jakinarazpen-fitxa pertsona bakarrak bete behar du, nahiz eta fitxa horretan bete beharreko informazioa beste profesional batzuek aldeztu aurretik kontrastatu ahal izan. Halaber, fitxan jasota gelditzen da susmoa kolektiboa dela edo ikastetxeko zuzendaritzaren babesa bilatu nahi izan dela. Kasu horietan, jakinarazpen-fitxan jasotzen denaren berri duten pertsona guztiek sinatu behar dute dokumentua amaieran, horretarako laukian.

- Uneren batean informazioa telefonoz helarazi arren, jasota gelditu behar da zer jakinarazten den, eta, beraz, ezinbestekoa da jakinarazpen-fitxa betetzea halako kasuetan ere. Ondorioz, fitxan bertan adieraziko da jakinarazpena telefonoz egin dela.
- Taula bakoitzaren azpian, oharren atal bat ageri da, aipatu nahi den egoera ez dadin esplizituki agertu taulen edukian.
- Azkenik, eranskinetan jasota daude babesgabetasun-gradienteak, zeinak luze-zabal baitaude garatuta *Nafarroako Foru Komunitateko haurren babesaren esparruko II. prozedura-eskuliburuan*, profesionalek ezagutu ditzaten kasuak sailkatzeko baliatzen diren mailak. Ezagutza horrek erraztu egingen du eragileek Gizarte Zerbitzuek baliozkotzeko eta esku hartzeko prozesuetan parte hartzea, eta lagungarria izanen da, orobat, departamentuen arteko mahaietan hartuko diren erabakiak ulertzeko.



3. *eranskinetan*, Nafarroako Foru Komunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen direktorio osoa dago jasota, jakinarazpen-prozesua errazteko. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak izanen dira kalteberatasun-, arrisku- edo babesgabetasun-egoerak haurrak babesteko sisteman sartzeko atea.

Jarraian, hezkuntza-sistamarako berariazko jakinarazpen-fitxa jasotzen da.

Hezkuntzako profesionalak Gizarte Zerbitzuetako profesionalak
jakinaren gainean jartzeko agiria, adingabeen
babesgabetasun-egoera posibleak hautemanetz gero.

Hezkuntza-
esparrua

15/2005 Foru Legea, abenduaren 5ekoa, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa. 4. artikulua. Herritarren erantzunkidetasunaren eta elkarlanaren printzipioa.

1. Adingabeen gaineko erantzukizunen bat duen orok beharrezko arreta eta zainketak eman beharko dizkie, haien garapen eta integrazio osoa faboratuko duten bizi-baldintza duinak izan ditzaten.
2. Lehenik eta behin adingabeen zaintzaileek edo tutoreek, eta, aldi berean edo haien ordeztan, kasuan-kasuan, Nafarroako Administrazio Publiko guztiek, erakundeek eta oro har herritarrek, Fiskaltzak eta organo juridikzionalak, elkarrekin koordinaturik, lagundu behar dute foru lege honen bidez lortu nahi diren helburuak betetzen, norik bere esparruan, antolamendu juridikoak esleitzen dizkien betebeharrak, eskumen eta erantzukizunak erabiliz eta betez.
3. Pertsona edo agintari orok, eta, bereziki, beren lanbide edo eginkizunengatik adingabeei loturik dauden horiek, adingabe baten arrisku-egoera bat edo ustezko geriza-gabetasuna antzematen badute, hari beharrezkoa duen berehalako laguntza emateaz gain, agintari eskudunei edo kargudunak hurbilenei horren berri emanen diete, neurririk egokienak har ditzaten, foru lege honetan xedaturikoarekin bat.

Aurrekoaz gainera, hauxe ezartzen du Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzko 47/2010 Foru Dekretuak, hain zuzen ere, laugarren xedapen gehigarrian:

Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 4. artikuluan ezarritakoa kontuan harturik, irakasleek, eskola-elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen betebeharrak galarazi gabe, eta bete behar duten eginkizunari kasu eginez, oinarritzeko gizarte zerbitzuei jakinarazi behar dizkiete, ikastetxeko zuzendaritzaren edo orientazio departamentuaren bidez, adingabe bat arrisku egoeran edo babesik gabe gelditzeko sor litezkeen egoerak, bereziki kontuan hartuz eskolara ez joateari lotutako alderdiak”.

• Datuen babesa

Hemen islatzen den informazioa ez da erabili behar beste helburu baterako, bertan inplikaturiko pertsonen baimenik gabe. Nahitaezkoa izanen da Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 9. artikulua araberako babestea txosten horretako datu pertsonalen konfidentzialtasuna, zeinak hauxe ezartzen baitu lehenbiziko apartatuan: “Fitxategiaren arduradunak, edo tratamenduarenak, beharrezko neurri teknikoak eta antolaketakoak hartu beharko dituzte, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta haiek aldatu, galdu edo baimenik gabe tratatu eta eskuratzea eragozteko, kontuan harturik teknologiararen egoera, bilduriko datuen nolakoa eta izan ditzaketen arriskuak, bai gizakien ekintzen aldetik, bai ingurunearen aldetik ere”. Gainera, 1/1996 Lege Organikoaren 22 *quater* artikulua araberako, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez eta legez esleitutako eskumenak erabiliz, “Administrazio publiko eskudunek interesdunaren baimenik gabe biltzen eta tratatzen ahalko dituzte adingabearen egoera balioesteko beharrezko datuak, barnean harturik bai adingabe bati berari dagokionak, bai haren familia- edo gizarte-ingurune bati buruzkoak”.

Jakinarazpen-data: Udalerria:

Fitxa betetzen duen profesionala:

Adingabearekin duen harremana:

Jakinarazpenaren arrazoia:

Txosten idatzia:

Aurrez aurrekoa:

Telefono bidezkoa:

Beste bat:

Adingabearen datuak:

Izen-deiturak:

Jaioteguna:

Jaiolekua:

Gurasoen/tutoreen/zaintzaileen datuak

Izen-deiturak:

Ahaidetasuna:

Zuzendaritza:

Telefonoa:

Familiako beste kide/pertsona batzuk

Izen-deiturak:

Ahaidetasuna:

Jaioteguna:

Telefonoa:

Jakinarazi zaie familiei Nafarroan egiten den sare-lana eta lana horrela egitearen arrazoia?

.....

Badute zaintzaileek hezkuntzaren alorrean egiten duten jakinarazpenaren berririk? Hala ez bada, zergatik ez dute familiek haren berririk?

.....

Zer pentsarazten du adingabe horrek agian ez duela jasotzen behar lukeen babesa?

.....

Egoeraren deskribapena:

.....

5. liburukia. Haurrak babestu beharra egokitzen denean esku hartzeko gida, Foru Komunitateko hezkuntza-

Komunikazio honen arrazoia azaldu dezaketen aurrekariak:

Profesionalak egindako jarduerak:

Adierazle orokorrak tratu desegokia	1	Inoiz ez
ikus daitezke eskola- eremuan eskolan:	2	Gutxitan
	3	Batzuetan
	4	Erregulariki
	5	Beti

Alderdi sozioakademikoak	1	2	3	4	5
1. Lan eskasa egiten du, zikin eta zabar					
2. Ikasteko zailtasunak ditu					
3. Absentismoa edo behin eta berriz eskolara ez joatea, justifikatu gabe.					
4. Lokartu egiten da gelan, edo nekatua egoten da					
5. Familiak gainbegiratzen du hezkuntza-prozesua (agendak)					
6. Berandu ailegaten da eskolara, ageriko arrazoirik gabe					
7. Kostatu egiten zaio kontzentratzea					
8. Okerrago itzultzen da eskolara asteburuaren edo oporren ondotik. Beldurra die oporrei eta asteburuei					
9. Gosaria ekartzen du					
10. Neke-sintomak eta logura ageri ditu					
11. Joaten dira eskolako hitzordu edo bileretara					
12. Umeari eskolara laguntzen diote, eta bila joaten zaizkio					
13. Kontrolatzen da materialen ordena, eskolako agenda					
14. Familiak gogor egiten die ikastetxeko profesionali, eta umeari ematen diote beti arrazoia					
15. Badute interesa, baina ez diete kasu egiten hezkuntza-orientazioei					
16. Parte hartzen dute eskolako oinarritzko gastuetan					
17. Inoiz bota dute ikastetxetik					

Oharrak eta/edo beste adierazle batzuk:

Absentismoaren protokoloa				
Aktibatu gabe				
Aktibatua	Pasiboa	Arina	Larria	Oso larria
Egun-kopurua				

Oharrak eta/edo beste adierazle batzuk:

Ikasteko motibazioa	1	2	3	4	5
1. Parte hartzen du gelako dinamikan					
2. Badu eskolako materiala, eta aldian-aldian eramaten du					
3. Egiteko ditu etxeko lanak					

Oharrak eta/edo beste adierazle batzuk:

Arriskua hautematea zaintzailearengan	1	2	3	4	5
1. Ez dute behar bezala zaintzen adingabea					
2. Zaintzaileen interes-maila adingabearen garapen-arloen bilakaerari buruz, adingabearen bizi-garapenari buruz					
3. Zaintzaileak ez dira joaten ikastetxeko hitzorduetara edo bileretara					
4. Aurre egiten diete ikastetxeko profesionalei, eta haurrari ematen diote arrazoi, gatazkarik izanez gero					
5. Badute interesa, baina ez diete kasu egiten gomendioei eta orientazioei					
6. Ez dute justifikatzen seme-alaben absentismoa, edo arrazoiak faltsutuz egiten dute					
7. Ez diote uzten seme-alabari eskolaz kanpoko jardueretan edo txangoetan parte hartzen					
8. Ez dute laguntzen oinarrizko eskolatzegastuak ordaintzen					
9. Tratu desberdina senideen artean					
10. Haurrek adierazten dute gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak borrokan aritzen direla edo drogak kontsumitzen dituztela					
11. Adingabearengan eragin negatiboa duten hirugarren pertsonen presentzia/bizikidetzak					

Oharrak eta/edo beste adierazle batzuk:

Aktibatutako hezkuntza-bitartekoak
Erantzun modu irekian laguntzarik, espezialistarik, curriculum egokiturik eta abarrik badu.
.....
.....
.....

Desgaitasuna	
Bai
Ez*

* Erantzuna ezezkoa bada, zergatik gertatzen da? Zaintzaileek uko egin diotelako balorazio-prozesu bat egiteari, nahiz eta ikastetxeak ikerketa hori sustatu?

Eskola-eremuan ikus daitezkeen tratu desegokiaren adierazle espezifikoak:

- Atxikita daude haurren babesgabetasunaren larritasun-mailak, irakasleentzako gida gisa.
- Taula hauek osatzeko jarraibideak:
 - Markatu X batekin susmoa sortzen duten lauki guztiak
 - Sintomak ez dira izaten eksklusiboak, eta, beraz, haurraren nabarituriko guztiak adieraz daitezke.
 - Gainera, nabarmendu behar da tratu txarren tipologia bakoitzean beste adierazle batzuk adierazteko aukera ere jasotzen dela: "Behatutako alderdiak eta/edo beste sintoma fisiko batzuk".

Haurren kontrako tratu txarrak

Zauri, kolpe eta erredura elektrikoaren seinaleak ditu behin baino gehiagotan, nekez justifikatzen ahal direnak	
Zaintzaileek eraso egin diotela adierazi du	
Ezkutatatu egiten du erasoak, eta/edo erantzun iheskorak edo inkoherenteak ematen ditu	

Oharrak eta/edo beste sintoma batzuk:

Zabarkeria

Itxura fisiko zaindu gabea du nabarmen, usain txarra, arropa desegokia, parasitosiak behin eta berriz	
Garapen fisiko (hazkundearen atzerapena), emozional eta/edo intelektual desegokiak	
Gosaldu gabe iristen da ikastetxera eta/edo neurrigabeko gosea izaten du	
Nekatuta dirudi, lo hartzen du ikasgelan	
Gaixorik joaten da ikastetxera eta ez du jasotzen tratamendu mediko egokirik	
Eskola-absentismoa. Ihes egiten du eskolatik. Ez da eskolara etortzen erregulariki. Berandu iristen da	
Alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzen ditu	
Zaintzaileak ez dira joaten bileretara, ezta hitzorduetara ere, eta ez dute kolaboratzen hezkuntza-arloko profesionalekin.	
Bakarrik itzultzen da etxera	

Oharrak eta/edo beste sintoma batzuk:

Tratu txar emozionala

Ikasgelan objektuak lapurtzen ditu, janaria eskatzen du	
Arazoak/atzerapena ditu irakurtzen eta idazten	
Ez ditu kontrolatzen esfinterrak adinari dagokion moduan; lehen lortzen zuen arren, kontrola galdu du berriro	
Jarrera beldurtia, isila; tristura adierazten du	
Ez da mintzatzen bere buruaz eta/edo familiaz	
Bat-bateko aldaketak ditu eskola-errendimenduan edo jokabidean	
Zaintzaileek irudi negatiboa dute, adingabeari errua botatzen diote jendaurrean, mespretxatu egiten dute edo balioa kentzen diote	
Ez du etxera itzuli nahi izaten	
Atentzioa eman nahi izaten du	

Oharrak eta/edo beste sintoma batzuk:

Sexu-abusua

Mina edo azkura du uzkiean edo genitaletan	
Sexu-ezagutza desegokiak bere adinerako	
Pertsona heldu desberdinek lagunduta ikusten da adingabea	
Mina du ibiltzean edo esertzean	
Neska edo nerabea haurdun (batez ere aita identifikatzeari uko egiten badio)	
Masturbazio konpulsiboa edo jendaurrekoa	

Oharrak eta/edo beste sintoma batzuk:

Lehentasan-maila

Premiazkoa	
Lehentasan-maila zkoa	
Arrunta	

DATA ETA SINADURA(K) (Orientatzailea, tutorea eta ikastetxeko zuzendaria):

Eranskinak

Kalteberatasuna (K): Arazo-aurrekariak edo krisi-egoerak ageri dira familian, edo defizitak zein arazoak, eta aurreikusten da eragin negatiboa edo muga handia izaten ahal direla gurasoek haurrari edo nerabeari zaintza eta arreta egokia emateko. Aurreikusten da, orobat, egoera horrek babesgabetasun-egoerak sortzen ahal dituela etorkizun hurbilean. Egoera horien artean daude, adibidez: estres-maila handia; haurren edo nerabeen gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek alkohol- edo droga-kontsumo ezgaitzailea izatea; isolamendu soziala; arazo fisiko, mental edo psikologiko garrantzitsuak gurasoetan —nahiz eta ez iritsi desgai bihurtzeraino—; edo babesgabetasun-aurrekari moderatuak izatea beste haur edo nerabe batzuekiko.

Barnean hartzen ditu, orobat, jaio aurreko arrisku-egoerak.

Familia- edo gizarte-inguruneke beste egoera batzuk, haurraren edo nerabearen garapenean eragin negatiboa izaten ahal dutenak. Adibidez, identifikazio-irudi desegokiak dituzten gizarte-inguruneak, zerbitzurik ez dutenak, delinkuentzia-indize handiak dituztenak, marjinazioa edo indarkeria agertzea adingabearen ingurunean (ikastetxea barne), eta abar.

Babesgabetasun arina (A): Gurasoek, tutoreek, zaintzaileek edo familian bizi diren helduek hezkuntza-, zaintza-, tratu- edo harreman-jarraibide desegokiak baliatzen dituzte haurrarekin edo nerabearekin.

Egoerak oraingoz ez die egin kalterik hurrei edo nerabeei (esparru fisikoan, emozionalean, sozialean, kognitiboan edo sexualean), baina, egoerak hala jarraitzen badu, baliteke etorkizunean eraginik izatea.

Babesgabetasun ertaina (E), babesgabetasun larria (L) eta oso larria (OL):

- Haurrak edo nerabeak:

1. Oinarrizko premiak ase gabe dauzka.
2. Horren ondorioz, kalte garbia egin zaio haren osasunean edo garapenean, edo baliteke etorkizunean eragitea.
3. Egoera hori gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek babes-eginbeharrak betetzeko ezintasunaren ondorio zuzena da, edo eginbehar horiek behar bezala ez betetzearena.
 - Azken horiek babes-eginbeharrak betetzeko ezintasuna hain da larria edo handia, ezen ezinezkoa baitaie etorkizun hurbilean haurraren edo nerabearen oinarrizko premiak beteko direla bermatzea.

6. Hezkuntza-sistemaren partaidetza haurren babesgabetasun-kasuetan esku hartzerakoan

Gaur egun, baieztatzen ahal da haurrak babesteko sisteman beste sistema batzuen partaidetza (hala nola hezkuntza- eta/edo osasun-sistemarena), funtsean, lankidetzan aktiboan oinarritzen dela, eta hala helarazten zaiela informazioa adingabeen eta haien familien egoerari buruz haurrak babesteko sistemako arduradunei (Oinarrizko Laguntza eta Bigarren Mailako Arreta eskaintzen duten Gizarte Zerbitzuak).

Hori guztiz beharrezkoa bada ere —batez ere detekzio- eta jakinarazpen-prozesuetan—, eskas gelditzen da kausa anitzeko arazoaren kasuan. Izan ere, arazo horiek diziplina askoko prozesuak eskatzen dituzte sistemetako eragile guztiekin, auzi honen gaineko jardura-esparru holistikoago bat lortzeko.

Izan ere, gida honetan zein *Nafarroako Foru Komunitateko haurren babesaren esparruko II. prozedura-eskuliburuan* jasotzen den asmoa garbia eta irmoa da: Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza eta Osasun Sistemako eragile guztiak inplikatzeko, bai sustapen- eta prebentzio-prozesuetan, bai adingabeen eta haien familia edo zaintzaile nagusien babesarekin lotutako prozesu eta ekintzetan.

Aurreko kapituluan garatu den bezala, detekzio- eta jakinarazpen-prozesuetan izanen dute hezkuntza-sistemak eta osasun-sistemak protagonismo nagusia, eta prozesu horien erakunde erantzuletzat hartuko dira.

Hala ere, argi dago ezinbestekoa dela hezkuntza- eta osasun-sistemak esku-hartze horietan parte hartzea, bai ikerketa- eta ebaluazio-prozesuaren alderdi espezifikoetan, bai esku hartzeko planak diseinatzerakoan eta gauzatzekoan. (Erakunde laguntzailetzat hartzen dira).

Kasu honetan, noski, oso garrantzitsua da hezkuntza-testuinguruaren espezifikotasuna, testuinguru horretatik landu daitezkeen zailtasunekin edo gabeziekin lotutako helburuak lortzeko. Izan daitezke egoera arinak (prebentzio-ekintzak), edo larritasun handiagokoak, zeinetan beharrezkoa baita agenteen arteko diziplinartekotasuna.

Jarraian, adingabeen eta haien familien ibilbidean ager daitezkeen prozesu espezifikoak banakatuko ditugu, haurren babesaren inguruabarrak kontuan hartuta. Ildo horretan, bereziki nabarmenduko dira zer unetan izan daitezkeen beharrezkoa hezkuntzaren alorreko eragileek ekintza espezifikoak abian jartzea, ikerketa eta ebaluazioko prozesuetan, esku hartzeko planak diseinatzean eta plan horiek gauzatzekoan.

Ikertzea eta ebaluatzea

Ikerketa- eta -ebaluazio prozesua Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan hasten da, balizko kalteberatasun-egoerei edo babesgabetasun-arriskuari buruzko jakinarazpenak jaso ondoren. Haurrak babesteko sistemaren barruko prozesu garrantzitsuenetako bat da, eta Nafarroako Foru Komunitaterako Arrisku eta Babesgabetasun Egoerak Baloratzeko Tresnan oinarrituta egiten da beti.


Babesgabetasun-egoerak ageri duen larritasun-mailaren arabera, Gizarte Zerbitzuen sareko profesional batzuek ala besteek izanen dute kasuaren gaineko ardura.

Ikerketa- eta ebaluazio-prozesuak fase hauek ditu:

- Hasierako balorazioa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egina; haren helburua da kasuen diskriminazioa egitea: babesgabetasunarekiko kalteberatasuna eta arrisku arina duten kasuak, eta babesgabetasun moderatu, larri edo oso larriaren susmo arrazoitua dutenak. Azken kasu horien ondotik, hurrengo balorazio-fasea egin beharko da. Fase horretan, premiazkotzat eta oso larritzat jotzen diren kasuak hauteman daitezke, eta zuzenean bideratuko dira Bigarren Mailako Arreta Zerbitzuetara, *Nafarroako Foru Komunitateko haurren babesaren esparruko II. prozedura-eskuliburuan ezarritako* protokoloan oinarrituta.
- Diagnostikoa eta ebaluazioa, Oinarrizko Laguntza Zerbitzuek egina (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek koordinatuta eta Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Taldeen parte-hartzearekin), baldin eta susmatzen bada adingabea arrisku ertaineko, larriko edo oso larriko egoeraren batean dagoela (baina ez premiazkoa). Helburua da diagnostiko bat egitea, zeinaren arabera zehaztuko baita zer larritasun-maila ageri duen gurasoaren, tutorearen edo zaintzailearen eskutik jasotzen duen babesgabetasun-egoera horrek.
- Gizarte Zerbitzuen Bigarren Mailako Arretak egindako balioespen diagnostikoa edo balioespen horren egiaztapena, beren jardun-erantzukizunaren barruan sartzen diren egoerak diagnostikatzea eta ebaluatzea helburu duena (babesgabetasun oso larriko egoerak edo babesgabeziak, edo gizarte-zerbitzuek haur/nerabeen zaintza beren gain hartzea, gurasoek hala eskatuta).

Hezkuntza-arloko profesionalek adingabeekiko eta haien zaintzaileekiko duten hurbiltasuna kontuan hartuta, lehen aipatutako edozein prozesutan duten zeregina garrantzitsua da prozesu horietan parte hartzeko orduan, betiere hezkuntza-eremuaren ikuspegi espezifikoa aintzakotzat harturik.

Horrek esan nahi du komunikazio- eta koordinazio-kanal bizkorrak ezarri behar direla hezkuntzako profesionalen eta kasu horietan esku hartzen duten gainerako profesionalen artean.



Balorazio- eta ebaluazio-prozesuetan, ezinbestekoa da informazioa esku hartzen duten profesional guztien artean transmititzea eta partekatzea, familiarentzat eta/edo kide bakoitzarentzat egokiak diren diagnostikoak eta esku-hartzeak egiteko. Informazioa partekatzeak adingabearen eta haren familiaren egoeraren ikuspegi integralagoa ematen du, eta kalteberatasun-egoeren edo babesgabetasun-arriskuaren azpian ageri diren arazoak oro har ulertzeko aukera ematen du.

Gainera, ez da alde batera utzi behar adingabeei eta haien zaintzaileei buruzko informazioa helarazteko legezko eginbeharra (Adingabearen Babes Juridikoari buruzko eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzeko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 22 *quater* artikulua, "Datu pertsonalen tratamendua"). Informazioa partekatu behar izateak ez du esan nahi informazio hori familiaren eta kide bakoitzaren konfidentzialtasun-eskubidearen mende dagoenik.

Partekatu beharreko informazioa adingabearekin eta haren zaintzaileekin dago loturik.

a) Adingabearen egoerari loturik.

- Arlo emozionala: gogo-aldarteak, umore-aldaketak, eta abar.

6. Hezkuntza-sistemaren partaidetza haur babesgabeekin esku hartzean

- Jokabidearekin loturikoa: frustrazioarekiko tolerantzia, arauak eta mugak onartzeko gaitasuna, erreparazio-gaitasuna, eta abar.
- Arlo soziala: interakzioan jarduteko ekimena, kideekin harreman nabarmenak ezartzeko gaitasuna, ikasgelan integratzea, eta abar.
- Arlo kognitiboa: ikasteko gaitasuna, ikasteko motibazioa, eginkizunetan zentratzeko gaitasuna, ezagutza formalak eskuratzeko gaitasuna, eta abar.

b) Gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen egoerari dagokionez:

- Gurasotasunean eragina izaten ahal duten alderdi pertsonalei dagokienez: aldakortasun emozionala, bulkaden kontrola, arazoan kanpo-atribuzioa, eta abar.
- Adingabearen premiak estaltzearekin lotutako alderdiei dagokienez: beharren ezagutza, jardueretikiko interesa eta pertsonaren bilakaera akademikoa, harreman sozialekiko interesa eta ezagutza, adingabearen gaitasunei buruzko itxaropen errealistak, eta abar.
- Ikastetxeari edo prestakuntza-zentroari dagokionez: adostutako bileretara joatea, familiari buruzko informazio nabarmena helaraztea, aurkitzeko erraztasuna, ikastetxearekin duten lankidetzeta-maila, eta abar.

Informazio-eragile gisa, eskatzen ahal da idatziz izateko, txostenen bidez edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako eta/edo Oinarrizko Laguntzako profesionalekin bilerak eginda.

Balorazio-prozesua egin ondotik, hainbat erabaki hartzen ahal dira, eskema honetan islatzen den babesgabetasun-mailaren arabera.

Gaiaren egoera	Hartutako neurriak	Jarduketa
Kalteberatasuna, arrisku arina	Familientzako laguntza	Prebentzioaren alorrean esku hartzea
Arrisku ertaina, handia	Familientzako laguntza	Berroneratzeko esku-hartzea
Babesgabezia	Tutoretza bere gain hartzea	Egoitza-zentroan hartzea Familia-harrera Adopzioa
Zaintza uztea	Zaintza hartzea	Egoitza-zentroan hartzea Familia-harrera

Gainera, babesgabetasun-mailaren balioespen horrek hainbat ondorio izanen ditu adingabearen egoera administratiboan:

	Arriskua	Babesgabe zia
Adingabearen lege-egoera	Gurasoek dute guraso-ahala	Nafarroako Gobernuaren tutoretzapean Etenda dago gurasoen guraso-ahala
Adingabearen kokapena	Familiaren bizilekuan	Familiaren bizilekutik kanpo
Esku-hartzearen xedea	Familia babestea, eta, horretarako, adingabearen beharrak behar bezala betetzea ahalbidetuko duten aldaketak sortzea	Aldi baterako banantzea (epe labur/ertainean familiaren etxebizitzara itzultzeko aukerarekin) Banantze iraunkorra (epe labur/ertainera itzultzeko aukerarik gabe)
Administrazio eskuduna	Toki-administrazioa	Nafarroako Gobernua
Zerbitzu eskudunak	Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Laguntza	Bigarren Mailako Arretako gizarte-zerbitzuak (Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordeztza)

Erabakiak hartzea eta kasu-plana diseinatzea (Esku hartzeko plana edo Banakako Babes Plana)

Adingabe batek bizi duen babesgabetasun-egoerari buruzko diagnostiko bat egin ondotik, kasu-taldea sortuko da, eta han parte hartuko duten profesionalak izanen dute harremana, balorazio diagnostikoa egiteko prozesutik datorrena. Talde horretan, funtsezkoa da hezkuntza-esparrua, eta profesionalak ebaluatu beharko dute nor izanen diren taldeko kideak eta arduraduna. Horrenbestez, kontuan hartu beharko da zer profesional den erreferentzia familiarentzat eta zer profesional izaten ahal den esku-hartzaile, alde batera utzi gabe badela erabakiak hartzearekin eta gauzatzearekin lotutako plano formalago bat —eta agian ez du pertsona berak hartu behar ardura hori bere gain—.

Talde horren helburua da esku-hartze eraginkor bat taxutzea, eta, haren bidez, askotariko eremuetako helburuak eta estrategiak bateratzea. Gainera, beharrezkotzat jotzen da kasuan esku hartzen duten profesional guztiek nolabaiteko ardura-sentimendua izatea kasuarekiko, eta, hortaz, bakoitzak berari dagokion parte kudeatzea.

Kasu-taldeak jarduera printzipio hauek izanen ditu oinarri:

- Adingabearen interes gorena da jarduera eta prozedura guztietarako erreferentzia, eta nahitaez bermatu behar dira erasotzen dien pertsona guztien oinarrizko eskubideak (adingabearenak, gurasoenak...).
- Dela azterketak egiteko guneetan, dela erabakiak hartzeko eta berresteko aholkularitza-guneetan, hezkuntza- eta osasun-sistemetako zein Gizarte Zerbitzuetako langileek egon behar dute ordezkaturatuta, horretarako izendatutako pertsonen bitartez.

- Hartutako neurriek bat etorri behar dute departamentu guztien printzipio eta prozedurekin, haietako bakoitzaren dinamikak ez oztopatzeko eta, horren ordez, elkarren osagarri gisa jarduteko.
- Ezinbestekoa da profesionalen artean gizalegezko harremanak bultzatzea eta harreman informalak ere zaintzea. Horri esker, lankidetzak-akordio sendoak eta dinamikoak lortzen ahal dira; beraz, elkarguneak beharrezkoak dira (prestakuntzakoak, parte hartzeak...). Harreman horiek berdintasun-printzipioetan oinarritu beharko dute, profesional bakoitzak eginkizun ordezkaezina eta garrantzitsua baitu haurrak babesteari dagokionez.

Talde horrek Esku Hartzeko Plan bat (Oinarrizko Gizarte Laguntzan) edo Banakako Babes Plan bat (Gizarte Zerbitzuen Bigarren Mailako Arretan) egiten ditu, eta, haietan, familiekin egikaritu beharreko esku-hartze bat planifikatuko da. Plana egiteko, garrantzitsua da parte hartzen duen profesional bakoitzak galdera hau egitea: “Zer-nola laguntzen ahal dut kasu hau artatzen?”. Hala, esku hartzen duten profesionalen arteko erantzunkidetasuna sustatuko da. Gainera, horrek erraztu egiten du profesional bakoitzak lanaren helburuak bere gain hartzea, norik bere jardun-eremua oinarri harturik.

Oro har, bi dokumentuek elementu hauek izan behar dituzte:

- a) Landu beharreko helburuak.
- b) Erabiliko diren baliabideak.
- c) Helburuak lortzeko denbora-faseak.
- d) Fase horien sekuentziak.

Lehen edo Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuen planak sistematikoki berrikusiko dira (hiru edo sei hilean behin, adingabearen egoeraren arabera).

Planak berrikustean, oro har, eginkizun hauek izanen dira:

- a) Ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatzea.
- b) Haurra edo nerabea zer egoeratan dagoen ebaluatzea.
- c) Plana aldatzen duen inguruabarririk ba ote dagoen ebaluatzea.


Lehen Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuen Planak familia-zaintzako egoerei lotuta daude, eta haien azken helburua da behar adinako aldaketak eragitea, zaintzaileek adingabeen premiak estaltzeari dagokionez. Horretarako, tankera honetako galderari erantzun behar zaie:

Zein izan daitezke familia jakin batean haurren aurkako tratu txarrak sortzearen oinarrizko arrazoiak? Zer behar du familia jakin hori aldatzeko? Zer zerbitzu edo tratamendu behar dira aldaketa hori gerta dadin laguntzeko? Zer probabilitate dago familia-egoera aldatzeko, baldin eta zerbitzu edo tratamendu horiek aplikatzen badira?

Lehen aipatutako galderen erantzunei buruzko hausnarketa partekatzeak egoeraren ikuspegi orokorra izatea ahalbidetuko du, eta erraztu egiten du lan-helburuak adostu eta banatu ahal izatea.

Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuen planak adingabeak familia-etxebizitzatik banantzeko egoerei lotuta daude, dela babesgabetasun-egoera ageri dutelako, dela administrazioak adingabearen zaintza bere gain hartu duelako, gurasoek hala eskatuta.

Dokumentu horretan, adingabeei eta haien zaintzaileei zuzendutako lan-helburuak ezarriko dira, egokitzen jo den banantze-motaren arabera (aldi baterako edo modu iraunkorrean). Gizarte Zerbitzuen Bigarren Mailako Arretako planen helburu nagusietako bat, batez ere babes-neurria hartu ondoko lehen bi urteetan, babesgabetasun-egoera eragin zuten inguruabarren larritasuna murriztea da.



7. Eranskinak

1. Hurrekin elkarrizketak egiteko orientazio praktikoak (Garbarino eta beste batzuk, 1993)

- Erantzunek ez dute egin berri zaien galderaren eragina bakarrik, baizik eta aurretik izaniko galdera-erantzunena ere bai. Erantzunek badute, orobat, elkarrizketatuak galderari egiten dion interpretazioaren eragina. Elkarrizketatuaren ustean elkarrizketatzaileak ontzat emanen duen erantzunak ere badu eraginik haiengan, bai eta informazio hori emateak ustez ekarriko dizkion ondorioek ere.
- Elkarrizketaren helburuak eta arauak argitzeko eta negoziatzeko, ez dira kontuan hartzen hitzak bakarrik, baizik eta keinuak, jarrerak, aurpegi-adierazpenak, ahots-tonua eta hizketa-eritmoa ere bai.
- Elkarrizketatzaileak, egoera antolatzen eta elkarrekintza kontrolatzen duen heinean, ez du planteatu behar elkarrizketatuaren komunikazio-gaitasuna berearen parekoa ote den ala ez. Elkarrizketatzaileek dute elkarrizketa-metodoak elkarrizketatuaren komunikazio-gaitasunera egokitzeko eginkizuna.
- Elkarrizketek haurraren estresa sortzen dutenean, adingabeak beste komunikazio-bide batzuk erabiltzen ditu maiz, hala nola negarra, eraso, uzkurtasuna edo egoera letargikoa. Erreakzio horiek irmo kontrolatu behar badira ere, haurrak deserosotasuna edo ondoeza adierazteko egiten duen ahalegintzat hartu behar dira, eta ez elkarrizketatzaileari edo haren arrazoiei eginiko eraso pertsonaltzat.
- Haurrek informazio fidagarriagoa emanen dute ziurrenik parte hartu duten gertaerei buruz mintzatzen direnean edo haien interesetatik eta eguneroko esperientzietatik oso hurbil dagoen zerbaiten gainean.
- Eskolaurreko adinean dauden haurrek askoz ere efizienteago erabiltzen dute hizkuntza familia-ingurunean eta heldu ezagunekin daudenean, eta ez hainbeste leku berri eta ezezagun batean daudenean, arrotz gisa ikusten dituzten pertsonekin.
- Eskolaurreko haurrek askoz modu efizienteagoan baliatzen dute hizkuntza pertsonak, objektuak edo gertakariak deskribatzeko, eta ez hainbeste zerbait argitzeko, egiaren bat ebaluatzeko edo baieztapen bat balioesteko.
- Elkarrizketatzaileek haurren baieztapenen hiztegia eta gramatika-konplexutasuna ebaluatu behar dituzte, eta haien mailara egokitu galderak eta iruzkinak.
- Eskola-adinean dauden haurrek pentsa dezakete elkarrizketatzaileak badakiela zein den galderen erantzuna, eta horrek larriki laburtzen ahal ditu erantzunak, bai eta erabat ezabatu ere.
- Haurrak elkarrizketatzean —batez ere adin txikikoak—, arreta berezia jarri behar da, eta saihestekoa da informazio-eskaerari agindu- edo eskakizun-itxura ematea.
- Haur txikientzako elkarrizketa egituratuan aurrerapen garrantzitsuak egin ez badira behintzat —ez da espero izatekoa—, beharrezkoa izanen da eskolaurreko hurrekin eta eskola-adineko txikienekin gutxiago egituratutako elkarrizketak erabiltzea.
- Elkarrizketatzaileak, ahal den guztietan, saihestu egin beharko du haurraren jokabidea

5. liburukia. Haurrak babestu beharra egokitzen denean esku hartzeko gida, Foru Komunitateko hezkuntza-

kontrolatzea, tratatzen diren gaietatik aldentzen utzi beharko dio, eta galderak haurraren errutinetan eta familia-jardueretan integratu beharko ditu; era berean, sartzen ahalko ditu haurrak elkarrizketa-egoeran integratuko dituen hitzak, marrazkiak eta ekintzak .

Haurrekin elkarrizketatzeko teknikak (Garbarino *et al.*, 1993)

- Galdera irekiak egitea eta erantzunak babestea (“Benetan?”, “Ulertzen dut”...) dira gakoa haurra mintzatzera bultzatzeko.
- Baieztatuta dago edozein adinetako elkarrizketatuek informazio fidelagoa ematen dutela askatasunez kontatzen dutenean, galdera zuzenei erantzuten ari direnean baino.
- Eraginkorrak izateko, galderak elkarrizketatutako haurraren garapen-mailara egokiturik egon behar dute.
- Haurraren esaldien batezbestekoa baino hiru-bost hitz gehiago ez dituzten esaldiak erabiltzea gomendatzen da.
- Hobe da izenak erabiltzea izenordainak erabiltzea baino.
- Haurraren terminoak erabiltzea komeni da.
- Galdera egitean, erabili termino desberdinak, haurrak ulertu duela ziurtatzeko.
- Haurrak ulertu duen ikusteko, eskatu esandakoa errepikatzeko, “Ulertu duzu?” galdetu beharrean.
- Birformulatu beste hitz batzuekin haurrak ulertzen ez dituen galderak. Galdera errepikatuz gero, haurrak ulertzen ahal du erantzun okerra eman duela eta erantzuna aldatu beharra daukala.
- Saihestekoak dira denbora-sekuentzia bat duten galderak.
- Arretaz interpretatu behar dira galdera oso zehatzei emandako erantzunak. Haurrek oso literalak izateko joera dute.
- Ez erantzun haurrak emandako erantzun bakoitzari beste galdera batekin. Erakutsi haurrak esaten duenaren gaineko interesa. Horrek lehen esandakoan sakontzera bultzatuko du.

2. Haurtzaroko eta nerabezaroko oinarrizko beharrak: Ebaluatzeko adierazleak

Behar fisikoak		
Premiak	Gogobetetze-adierazleak	Urritasun-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> Elikadura 	<ul style="list-style-type: none"> Amaren elikadura egokia haurdunaldian eta haurrari bularra emateko garaian. Elikadura nahikoa, askotarikoa, denboran sekuentziatua, adinera egokitua. 	<ul style="list-style-type: none"> Fetuari kalte egiten dioten substantziak kontsumitzea. Desnutrizioa edo gehiegizko elikadura, osasun-arazo nabarmenak eragiten dituena. Elikadura desegokia adinerako.
<ul style="list-style-type: none"> Tenperatura 	<ul style="list-style-type: none"> Etxebizitza- eta jantzi-baldintza egokiak. 	<ul style="list-style-type: none"> Hotza etxebizitzan, hezetasuna, oinetakorik eta jantzirik ez.
<ul style="list-style-type: none"> Higienea 	<ul style="list-style-type: none"> Gorputz-higienea, etxebizitzakoa, elikadurakoa, jantziarena eta ingurukoa. 	<ul style="list-style-type: none"> Zikinkeria, ingurunearen kutsadura, germen infekziosoak, parasitoak eta karraskariak.
<ul style="list-style-type: none"> Osasuna 	<ul style="list-style-type: none"> Adinaren eta osasun-egoeraren araberako azterketa egokiak, txertaketak. 	<ul style="list-style-type: none"> Osasun-kontrolik eza, sintomak eragitea, txertorik ez jartzea.
<ul style="list-style-type: none"> Loa 	<ul style="list-style-type: none"> Eremu babestua eta isila, adinerako egokia; siesta eta guzti, haur txikien kasuan. 	<ul style="list-style-type: none"> Segurtasunik eza, zarata-kutsadura, etenaldiak maiz, denbora gutxiegi, egunez atsedean hartzeko tokirik ez.
<ul style="list-style-type: none"> Jarduera fisikoa: ariketa fisikoa eta jolasa 	<ul style="list-style-type: none"> Mugitzeko askatasuna espazioan; espazioa jostailuekin eta beste haur eta nerabe batzuekin; kontaktua elementu naturalekin (ura, lurra, landareak, animaliak, eta abar); ibilaldiak, txangoak, eta abar. 	<ul style="list-style-type: none"> Gorputz-mugiezintasuna; espaziorik eza; objekturik eza; jostailurik eza; jarduerarik eza; sedentarismoa.

Segurtasuna		
Premiak	Gogobetetze-adierazleak	Urritasun-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> Haurrak edo nerabeak haien osotasun fisikorako arriskutsuak diren ingurune-baldintzetatik babestea. Kalte egiten dioten edo egiten ahal dioten beste heldu edo adingabeetatik babestea. Haurrak edo nerabeak babestea beren buruari egiten ahal dioten kaltetik. 	<ul style="list-style-type: none"> Etxea segurtasun-irizpideekin antolatzea (entxufeak, detergenteak, tresnak eta erremintak, eskailerak, eta abar). Gainbegiratzea: Haurraren edo nerabearen harremanen eta dagoen lekuaren gaineko ezagutza eta kontrola. Orientatzea eta gidatzea: Oinarrizko segurtasun-arauak irakastea haurrari edo nerabeari. Eskuragarritasuna: Laguntzeko eta babesteko esku-hartze zuzena, haurrari edo nerabeari beste pertsona batzuek kalte egiten diotenean edo kalte egiten ahal diotenean, edo are bere buruari kalte egiten ahal dionean ere. 	<ul style="list-style-type: none"> Etxeko istripuak. Haurrak istripuak edo erasoak jasaten ditu, gainbegiratze faltaren ondorioz. Haurra edo nerabea etengabe inplikaturik dago arrisku-jokabide edo -harremanetan, zeinak gutxietsi egiten baitituzte helduek, edo zuzenean kasurik egin gabe utzi. Haurrari edo nerabeari behin eta berriz erasotzen diote beste pertsona batzuek. Haurrak edo nerabeak bere buruari min egiteko jokabide larriak edo bere buruaz beste egiteko ideiak agertzen dituenean, arreta espezializatua emateari uko egitea edo arreta hori atzeratzea.

Behar emozionalak		
Premiak	Gogobetetze-adierazleak	Urritasun-adierazleak

<ul style="list-style-type: none"> • Segurtasun emozionala: <ul style="list-style-type: none"> • Pertsona heldu garrantzitsuekin harreman seguruak, egonkorrak eta afektiboak izatea. • Haurraren edo nerabearen premiekiko sentikortasuna eta erantzun-gaitasuna. • Kontaktu fisiko egokia. • Afektua eta babes positiboa jasotzea. • Senideekin eta beste pertsona heldu garrantzitsu batzuekin harremanak izaten jarraitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Baldintzarik gabeko atxikimendua (onarpena, prestasuna, irisgarritasuna, eskaerei erantzun egokia ematea eta gaitasuna); kontaktu intimoa (ukimenez, bisualki, hitzez, eta abar); afektua fisikoki eta hitzez agertzea; haurraren edo nerabearen lorpenak eta alderdi positiboak indartzea eta balioestea; kontrolatzeko gaitasuna; babesteko gaitasuna; moral inductiboa duten gatazkak konpontzea (hau da, azalpenak, adinaren araberako eskakizunak, koherentzia eskakizunetan, berrikusteko aukera haurrak edo nerabeak erabakia gaitzesten badu); interakzio ludikoa familian gurasoekin eta beste senide batzuekin. 	<ul style="list-style-type: none"> • Arbuioa; absentsia; gurasoek denborarik ez izatea; irisgarritasunik eza; ez izatea afektu-adierazpen fisikorik eta hitzezkorik; haurra edo nerabea gutxiestea; haurraren edo nerabearen lorpenak ez indartzea, gutxiestea; hitzezko erasoak, mezu negatiboak nagusitzea; ez hautematea; ez interpretatzea; ez erantzutea; kontingentziaz ez erantzutea; erantzunetan koherentziarik eza; haurraren edo nerabearen kontrol-gaitasunik eza; arriskuetatik babesteko gaitasunik eza; autoritarismoa; gurasoek bizi-tonu goibela edo tristeza izatea. • Hausturak haurraren edo nerabearen harreman garrantzitsuetan; maitasuna eteteko edo kentzeko mehatxuak. • Gurasoen Alienazio Sindromea agertzea.
--	---	--

Premiak	Gogobetetze-adierazleak	Urritasun-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> Parte-hartze eta autonomia progresiboa. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurrak edo nerabeak parte hartzea erabakietan eta eragiten dioten auzietan, bai eta familian, eskolan eta gizartean bere buruaren eta besteren alde egin dezakeen kontuetan ere. 	<ul style="list-style-type: none"> Ez entzutea haurrari edo nerabeari; kontuan ez hartzea; mendekotasuna.
<ul style="list-style-type: none"> Garapen psikosexualeko prozesua errespetatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Galderei erantzutea; jolasak eta autoestimulazio sexuala ahalbidetzea; abusetatik babestea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ez entzutea; ez erantzutea; engainatzea; haurtzaroan edo nerabezaroan sexu-adierazpenak zigortzea; sexu-abusua.
<ul style="list-style-type: none"> Irudizko arriskuetatik babestea. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurraren edo nerabearen beldurrak entzutea, ulertzea eta erantzutea (abandonuaren beldurra, senideen arteko lehia, heriotzaren beldur izatea); beldurra adierazteko aukera izatea; beldurrak sustatzen dituzten hitzak eta jokabideak saihestea (hitzezko indarkeria edo indarkeria fisikoa, eztabaida desegokiak, hitzezko mehatxuak, kontrol-galerak, jokabidearen inkoherentzia). 	<ul style="list-style-type: none"> Ez entzutea, ez erantzutea, ez lasaitzea, inhibizio emozionala, hitzezko indarkeria, indarkeria fisikoa ingurunean, mehatxuak, kontrola galtzea, koherentziarik eza harremanean.
<ul style="list-style-type: none"> Laguntzeko jarrera arazoak konpontzeko edo ondoez emozionalaren sintomak baretzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurraren edo nerabearen arazoak edo ondoez emozionalaren sintomak identifikatzea edo antzematea; sintomek duten garrantziaren balorazio egokia egitea; horiek konpontzeko arreta espezifiko eskaintzea; arreta espezializatua eskura izatea, familian esku-hartzea nahikoa ez denean. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurraren edo nerabearen arazoak eta ondoez emozionalaren sintomak ez ezagutzea; horien garrantzia gutxiestea; haurrak edo nerabeak ondoez psikologikoaren sintoma nabariak dituenen, arreta espezializatua emateari uko egitea edo atzeratzea.

Behar sozialak		
Premiak	Gogobetetze-adierazleak	Urritasun-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> Jokabidearen orientazioa eta mugak. 	<ul style="list-style-type: none"> Mugak ezartzea haurren edo nerabearen jokabide desegokiei; diziiplina sendoa, irakaskuntza gisa ulertua eta enpatiaz eta afektuz transmititua; diziiplina inductiboa erabiltzea; haurren edo nerabearen jarduerak gainbegiratzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ez ezartzea mugarik haurren edo nerabearen jokabideari; inplikazio edo gainbegiratze txikia; boterea baieztatzean edo afektua kentzean oinarritutako diziiplina-estrategiak erabiltzea; diziiplina inkoherentea, kolerikoa edo leherkorra, edo are zurruna.
<ul style="list-style-type: none"> Gizartean parte hartzeko eta beste pertsona batzuekin harreman egokiak ezartzeko emozio eta jokabide egokiak kontrolatzen ikastea. 	<ul style="list-style-type: none"> Balio moralak irakastea; bulkadak kontrolatzen irakastea; norbanakoen arteko desberdintasunak errespetatzen irakastea; enpatia-gaitasuna garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Jokabide-eredu bortitzen eraginpean egotea; gurasoen edo helduen eredu asozialak, abusuzkoak edo oso desegokiak izatea eragin gisa; jokabide asozialak indartzea edo baimentzea; ez kontrolatzea haurren edo nerabearen bulkada eta jokabide oldarkorrak, edo indartzea halakoak.
<ul style="list-style-type: none"> Harreman sozialen sarea. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdinekiko adiskidetasun- eta laguntasun-harremanak (berdinekiko kontaktua eta elkarrekintza sustatzea familia-ingurunean eta eskolan; harremanetarako denborak, eta abar); harremanen jarraitutasuna; seme-alabak dituzten beste familia batzuekin batera egindako jarduerak; beste haur edo nerabe batzuek parte hartzen duten talde edo kolektiboetan sartzeara. 	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte-isolamendua; lagunetatik denbora luzez banantzea; lagunekin harremanetan jartzeko ezintasuna; lagunak debekatzea; konpainia arriskutsuak.
<ul style="list-style-type: none"> Elkarrekintza ludikoa. 	<ul style="list-style-type: none"> Elkarrekintza ludikoa berdinekin eta familiakoak ez diren pertsonekin. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdinik ez izatea; ez izatea interakziorik familiakoak ez diren pertsonekin; ez edukitzea jostailu edo objektu ludikorik; jostailu desegokiak.

Behar kognitiboak		
Premiak	Gogobetetze-adierazleak	Urritasun-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> Zentzumenak estimulatzea. Esplorazio-eta ikaskuntza-esperientziak eskura jartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Zentzumenak estimulatzea; estimuluak dituen ingurunea (bisualak, ukimen bidezkoak, entzutekoak, eta abar); estimuluen kantitatea, aniztasuna eta kontingentzia; interakzio ludikoa familian; hizkuntza-estimulazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> Zentzumenez gabetzea; zentzumen-pobrezia; estimuluen monotonia; erantzunaren kontingentziarik eza; hizkuntza-estimulaziorik eza.
<ul style="list-style-type: none"> Ezagutzak eta trebetasunak eskuratzea antolatutako prestakuntza-prozesu baten bidez (eskola edo homologatutako besteren bat). 	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza egituratua modu egonkorrean ematea, eskolaren bidez edo behar bezala homologatutako beste eredu alternatibo baten bidez. 	<ul style="list-style-type: none"> Ez modu egonkorrean ematea prestakuntza egituratu bat, eskolaren edo behar bezala homologatutako beste eredu alternatibo baten bidez.
<ul style="list-style-type: none"> Arakatze fisikoa eta soziala. 	<ul style="list-style-type: none"> Objektu, jostailu, elementu natural eta pertsona ugari biltzen dituen ingurune fisiko eta sozialarekin kontaktua izatea; ingurune fisiko eta sozialen esplorazioa; haur txikiei segurtasun-oinarriak eskaintzea, haiekin esperientziak partekatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ingurune pobrea; esplorazioan laguntzarik ez ematea; pertsona heldu eta berdinekin esperientziak ez partekatzea.
<ul style="list-style-type: none"> Ulermena. 	<ul style="list-style-type: none"> Galderei modu kontingentean entzutea eta erantzutea; egia esatea; haurra edo nerabea partaide egitea, bizitza, sufrimendua, plazera eta heriotza ezagutu ditzan; bizitzaren, harremanen eta loturen ikuspegi positiboa transmititzea; gizartearen aldeko jarrera, balio eta arauak transmititzea, moldagarriak; tolerantzia izatea desadostasun eta desberdintasunekin (sexua, arraza, desgaitasunak, eta abar). 	<ul style="list-style-type: none"> Ez entzutea; ez erantzutea; une desegokian erantzutea; gezurra esatea; errealitatea ezkutitzea; bizitzaren, harremanen eta loturen ikuspegi negatiboa; balio antisozialak transmititzea; dogmatismoa, arrazakeria.

Haurtzaroko eta nerabezaroko oinarrizko premiak: ebaluazio-adierazleak adin-taldean arabera**

Premiak ebaluatzeko adierazleak. 0-2 urte

Behar fisikoak	Segurtasuna	Behar emozionalak	Behar sozialak	Behar kognitiboak
<ul style="list-style-type: none"> Osasun ona oro har; gaixoaldiak maiz. Pisua eta altuera esperotako mailetan. Haurrari dieta egokia eta elikagarria ematen diote. Erregularki bainatzen dute. Eguraldiarekin bat datozen jantziak. Arropa normalean garbia (gernurik, gorozkirik edo janari-hondarrik gabe). Etxea garbi dago, baita haurraren ohea ere. 	<ul style="list-style-type: none"> Arreta egokia haurrak izaniko lesioei. Haurrak ageri dituen lesioek edo marka fisikoek azalpen onargarria dute. Gurasoek hartzen dituzte istripuak prebenitzeko neurriak. Haurra babesten dute beste pertsona batzuen erasoetatik edo abusuetatik. Seguruak dira jolasteko erabiltzen dituen jostailuak edo objektuak. Gurasoek ziurtatzen dute haurrak leku seguruetan jolasten direla etxetik kanpo dagoenean. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurrak harreman egonkorra du gutxienez heldu batekin. Jarraitutasuna ageri da haurrari arreta ematen dioten figura helduetan. Esna dagoenean, haurra gurasoetako baten ardurapean egoten da normalean. Gurasoek haurra kontsolatzen dute gaixo dagoenean, gogaituta dagoenean edo min hartu duenean. Erantzuten diete komunikatzeko eta hitz egiteko ahaleginei. Gozatu egiten dute haurrarekin komunikatzen. Adierazi eta berretsi egiten dituzte haurraren aurrerapenak eta lorpenak. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurrak maiz izaten ditu beste pertsona batzuekin jolasteko eta komunikatzeko aukerak. Beste pertsona heldu batzuekin eta beste haur batzuekin harremanak izan ditzan sustatzen da. Beste haur batzuekin jolastera animatzen dute. Maiz bisitatu dituzte lagunak eta senideak. Gurasoek bilatu dute laguntza edo aholkularitza, haurraren jokabidea maneiatzeko zailtasunak dituztenean. Gurasoek metodo egokiak erabiltzen dituzte haurren jokabidea maneiatzeko (errefortzu positiboa, negoziazioa, modelatzea, sariak, distrakzioa, 	<ul style="list-style-type: none"> Haurra estimulatzen dute ingurua arakatzeko eta aktibo jokatzen. Haurra ikastera animatzen dute. Gauzak bere kabuz egitera animatzen dute. Erabakiak hartzeko aukera ematen diote, eta aukera errazak jartzen dizkiote eskura. Errespetatzen dizkiote independente izateko ahaleginak. Jolastera animatzen dute. Nolabaiteko askatasuna du bere ingurua esploratzeko.

<ul style="list-style-type: none"> • Laguntzen diote ohiko kontrol pediatrikoetan. 		<ul style="list-style-type: none"> • Haurrak baditu zenbait errutina eguneroko martxan. • Gurasoen arteko desadostasunak indarkeriarik gabe konpontzen dira. 	<p>pertsuasioa, amaiaraztea...).</p>	<p>7.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Inguruarekiko jakin-mina erakusten du (pertsonek, jostailuak, eta abar). • Bere adinerako egokiak diren jostailuak ditu.
---	--	--	--------------------------------------	---

** Iturria: *Framework for the assessment of children in need and their families* (2000). Osasun Departamentua, Erresuma Batuko Gobernuua.

Premiak ebaluatzeko adierazleak. 3-63 urte

Behar fisikoak	Segurtasuna	Behar emozionalak	Behar sozialak	Behar kognitiboak
<ul style="list-style-type: none"> • Ematen dizkiote txertoak; hala ez bada, badute azalpen egoki bat. • Lo-ordutegi erregularra. • Gurasoak arduratzen dira haurrak behar adina lo egiteaz eta isiltasuna egoteaz. • Ordutegi egonkorrak eta egokiak (otorduak, loa, bainua). 	<ul style="list-style-type: none"> • Haurra beti egoten da arduradun gaitu batek gainbegiratuta, bai etxean, bai etxetik kanpo. • Gurasoek gainbegiratzen dute haurraren eta haren neba-arreben arteko harremana. • Oro har, neba-arrebek ongi tratatzen dute haurra. • Haurra zaintzen duten helduak ezagunak dira, eta gutxi. • Gurasoak arduratzen dira haurra pertsona arduratsu eta gaituen ardurapean uzteaz, horretarako beharra dutenean. • Gurasoek pertsona ezagunak eta arrotzak bereizten irakasten diote haurrari. • Ustekabeko lesio gehiegi. • Haurrari eraso edo zigor fisikoak egiten zaizkio. 	<ul style="list-style-type: none"> • kontaktu fisiko positiboa nabari da gurasoen eta haurraren artean. Helduek gozatu egiten dute horrekin. • Gurasoek haurrari ematen dizkioten jokabideak eta erantzunak aurreikusteko modukoak eta koherenteak dira. • Sarritan, haurrarekiko afektu-adierazpen bat-batekoak izaten dituzte. • Haurra bere horretan eta den bezala balioesten da. • Gurasoak harro agertzen dira haurraz. • Haurra onartuta dago familiako kide gisa. • Uzten diote parte hartzen familiako ospakizunetan. • Gurasoek behar beste denbora ematen dute haurrarekin lotura positibo eta indartsu bat garatzeko. • Modu sentikorrean erantzuten diote haurrari. • Indartu egiten dute familian harreman afektiboak ezartzea. • Haurrak maiz ikusten ditu ondoez emozionalaren sintomak gurasoengan. • Haurrari maiz egiten zaizkio kritikak edo etsaitasun-adierazpenak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Muga eta arau argiak daude familiaren portaerari loturik. • Muga eta arau horiek sendoak dira, eta gurasoek errespetatu egiten dituzte. • Haurrak laguntza jasotzen du bere sentimendu negatiboak kontrolatzen eta behar bezala adierazten ikasteko. • Haurrari irakasten zaio beste haur eta pertsona heldu batzuekin harremanak izaten. • Haurrari irakasten zaio beste pertsona batzuk eta haien gauzak errespetatzen. • Txandak errespetatzen irakasten zaio. • Negoziatzera animatzen dute. • Gurasoek beste pertsona batzuekin erlazionatzeko duten modua eredu egokia da haurrarentzat. • Haurrari erakusten zaio ez duela izan behar portaera bortitz edo krudelik. 	<ul style="list-style-type: none"> • Bere adinerako aurreikus daitekeenaren arabera jolasten da. • Kontuz tratatzen dira haurraren jostailuak/liburuak. • Etxetik kanpo paseoan eraman ohi dute. • Haurra ari da ikasten bere adinerako aurreikusitakoaren arabera hitz egiten eta adierazten. • Erantzun egokia ematen die soinuei eta ahotsei. • Bi urterekin dagoeneko aginduak betetzen ditu. • Gurasoak aritzen dira haurrarekin hizketan, abesten eta jolasean. • Gurasoek haurrarekin batera irakurtzen dituzte liburuak edo ikusten dute telebista.

Premiak ebaluatzeko adierazleak. 3-4 urte

Behar fisikoak	Segurtasuna	Behar emozionalak	Behar sozialak	Behar kognitiboak
